

# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkartea Bergara 1994, maiatzak 20



## Pazkuak Bergarako jaixak

OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK



*Freska zaitezen!*

Hilabete honetarako promozio baliagarria.



OPEL

10<sup>o</sup>  
URTEURRENA

TALLERES  
**OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/46

BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN:

Tfnoak: 70 05 86

- ATEAK
- PVCzko LEIHOAK
- ALUMINIOZKOAK
- POLIURETANOZKOAK
- TARIMAK
- PARKETAK
- HORMA ARMAIRUAK



Kruz Gallastegi, 7  
BERGARA

# IRAURGI

Tfnoa:  
76 03 96

**LEHENDIK ONENAK IZATEAZ GAIN, ORAIN % 10eko DESKONTUAK  
ESKAITZEN DIZKIZUEGU PVCzko LEIHOETAN**



**TAPIZAK**

**MOKETAK**

**ALFONBRAK**

Kruz Gallastegi, 9

**GASTONY DANIELA**  
TAPICERIAS • MOQUETAS • ALFOMBRA

☎ 76 07 37

## BERRIGARA

Monte Jauregia, 20.570 Bergara.

Telefonoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Elkarria

Elkarria, 13. 20.570 Bergara.

1976-08-19

**Zuzendaria:**

Gorka Elorza.

**Erredakzioa:**

Elkarria Azkarate, Eduardo Mendibil eta

Mikel Elkorobereizibar.

**Abokatuak:**

Mikel Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Abokatuak eta harpidetzak:**

Mikel Azkarate eta Gorka Elorza.

76 03 97

**Argitaratzaileak:**

Angel Mikeo, Estepan Plazaola,

Mikel Angel Elkorobereizibar, Alex

Elorza, Iñaki Eraña, Juan Martin

Elorza, Josu Oregi, Maripi Laskurain,

Elorza Alzelaia, Ainhoa Lete, Jon Ander

Elorza, Mikel Lizarralde, Monika

Elorza, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa

Elorza.

**Elkarria eta marrazkiak:**

Mikel Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Elorza, Jose Martin Ezenarro

Elorza, Julian Ezenarro.

**Argitaratzaile argazkia:**

ELKARRIA Argazki Taldea.

**Elkarria:**

Elkarria Argazki Taldea.

Telefonoa: 3.500 ale.

**Argitaratzaileak:**

Elkarria Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Argitaratzaile gordailua: SS 50/ 91

Telefonoa: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen

argitaratzailearen adierazitako esanien eta iritzien

erantzukizunik.



Aldizkari honek  
Bergarako Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Euzko Jauriaritzako Kultura  
sailaren laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

## IÑAKI UGARTEBURU

Udaleko Kirol Zerbitzuko  
Teknikaria

- Noiz zabalduko  
dira kanpoko igerile-  
kuak?

- Ez dakigu zehatz  
baina ekainaren erdi-  
aldean izango da ziu-  
rrenik, ekainaren 8ra  
arte ikastaroak baitau-  
de barruko pizinetan  
eta Osakidetzak ez digu  
lagatzen kanpokoak  
eta barrukoak batera  
zabalik izaten. Bes-  
talde, kanpoko igeri-  
lekuetan egun hauetan  
hasi gara lanean eta  
ikusi egin behar zer no-  
lako konponketak egin  
beharko diren; prin-  
tzipioz ondo daude.

- Bestelako hobe-  
kuntzarik egin behar  
da?

- Ez. Aste honetan  
bertan hasi dira gar-  
biketa eta txukuntze la-



nak eta gure asmoa  
lehenbailehen zabal-  
tzea da.

- Zenbat jende ibili  
zen aurreko udan ige-  
rilekuetan?

- Ekainean 11.057  
sarrera zenbatu ziren,  
uztailean 17.301, abuz-  
tuan 10.442 eta irailean  
8.140.

**"Kanpoko igerilekuak ekainaren  
erdialdean zabalduko dira"**

## I T U R R I O N E T I K

Udalan euskararen erabilera  
bultzatzeko plan berria

Bergarako Udalak Hizkuntza Politikarako  
Idazkaritza Nagusiari eskaria egin dio, Udalan  
euskararen erabilera bultzatzeko martxan jarri  
nahi duen plan berri baterako aholkularitza eta  
laguntza eman diezaion. Udalak urrats berri  
bat eman nahi du udal administrazioan  
euskararen normalkuntza lortzeko bidean.  
Orain arte 45 bat langilek jardun dute  
euskarazko ikastaroetan eta Udalaren  
prebisioren arabera datorren ekainean  
dozenerdi bat langile kenduta besteek beren  
hizkuntza eskakizuna lortua izango dute.

E S A N  
D U T E

"Aranzabal noizean  
behin azaldu da lehen  
taldean baina garbi  
dago gora egingo  
duela. Zaildu beharra  
dauka, baina etorkizun  
ikaragarria du"

**FERNANDO  
BECERRIL**  
Kazetaria  
EL DIARIO VASCO

"Gure ahalegina hortik  
joaten da, jendea  
benetan integratu eta  
euskaldundu... ez  
bakarririk erakutsi,  
baizik eta jendeak  
hitzezin dezala, hori  
da gure helburu  
nagusia, ez tituloak  
ematea"

**MARIA DOLORES  
LETE**  
Udal Euskaltegiko  
Zuzendaria  
ARIZ-ONDO

"Botatzeko  
produktuen, janari  
azkarraren aro  
honetan, gu artisauen  
erara egindako ogia  
gara, gutxika-gutxika,  
ehundaka gari ale  
ezberdinez, kalitatezko  
legamiz, labean poliki-  
poliki haundituz  
doana"

**ELENA LAKA**  
"...eta kitto!" Eibarko  
Euskara elkarteko  
presidentea  
...ETA KITTO!

RICHARD GERE SHARON STONE



**ENTRE DOS MUJERES**

Larunbata: 22.30.  
Igandea: 19.30, 22.30.  
Astlehena: 19.30, 22.30.  
Asteartea: 19.30.  
Asteazkena: 19.30  
(Ikuslearen Eguna).



**HENRY, RETRATO DE UN ASESINO**

Osteguna: 20.00.

**Zinea**

▼▼ **Richard Gere, Sharon Stone** eta **Lolita Davidovich** Mark Rydellen filme honen erreparto-buruan. *Vincent* (**Richard Gere**) prestijio haundiko arkitektoa dugu eta *Sally*rekin (Stone) ezkondua dago baina *Olivia* (**Lolita Davidovich**) ezagutu eta bere bizitzako erabakirik zailena hartu beharko du...

▼▼ **John Mc Naughton**en filme honek Sitgeseko 1990eko zine-jaialdian filme eta zuzendari onenaren eta kritikaren saria eskuratu zituen. Haurtzaro zaila izan eta kartzelan denboraldi batez egon ondoren, errugabeko hiltzailea bihurtuko da *Henri Lee Lucas* (**Michael Rooker**). Arazoak segituan etorriko dira...

**Deiak**

▼ **Gorka González**en koadro erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Zeramika lanen** erakusketa Kultur Etxean asteartera arte, maiatzak 24.

▼ **San Esteban Elkoartiko** jai igandean, maiatzak 22. 11.30etan kanpai hotsa eta etxaflero jaurtiketa, 12etan meza, ondoren salda eta pintxuak, eta amaitzeko, erromeria eta kukañak.

**Ogia**

▼ **Igandea 22:** Ogizun.  
▼ **Asteartea 24:** Konde.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

▼ **Larunbata 21:** Camacho/Ruiz.  
▼ **Igandea 22:** Camacho/Morales.  
▼ **Astlehena 23:** Puy/Azkoaga.  
▼ **Asteartea 24:** Guallar/Español.  
▼ **Asteazkena 25:** Estella/Corcuera.  
▼ **Osteguna 26:** Mozos/Irizar.  
▼ **Ostirala 27:** Camacho/Ruiz.



**Gizon Emakume**

**BARRENKALE, 35 BERGARA**

# HIRU TRUKU

## RUPER ORDORIKA, JOSEBA TAPIA & BIXENTE MARTINEZ

Udal Euskaltegiak 10 urte

Asteazkenean Zabalotegin

**Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martínezek** (Oskorri) osatu berri duten Hiru Truku taldeak kontzertu bat eskeiniko du asteazkenean, 19.00etan, Zabalotegiko aretoan, Udal Euskaltegiaren X. urteurrenaren inguruko ekitaldien barne. Ruper Ordorikaren hitzetan, "bertsolaritzaren aurreko atal bat, kantu zaharrena alegia, biltzen jardun dugu azken urteotan eta orain material hori plazaratzeko nabia izan dugu. Emanaldi baten oinarria kantu narratiiboak, baladak, liriteke eta bizkuntza aldetik, bizkaitarrak dira: Gernika, Elantxobe, Otxandio, Eibar edo Oñatikoak. Kantu liriko pare bat eta baladak nagusiki. Emanaldi lasaia izango da, eserita eta eszenografia oso sinplearekin. Erabiliko ditugun instrumentoak soinu bat, kitarra, mandolina eta bouzoukia (jatorri grekoa duena) izango dira".



Joseba Tapia soinujolea, Ruper Ordorika eta Bixente Martínez (Oskorri): Hiru Truku.

Ruper Ordorikaren us-tez, "bertsolaritza fuerte egon den lekuetan kantu hauek ezabatu egin dira, bertsolaritzak bere gain hartu duelako herriaren kronika. Kantu zahar baten jatorria, berriz, ez da ezagutzen eta zenbai-

tetan zati batzuk besterik ez dira geratzen. Gaiak unibertsalak dira: dotrinari buruzkoak, emigrazioaz, gerrara joateaz, edota gizakiok ditugun beldurrez. Kantu zahar baten beste ezaugarrietako bat egile ezagunik ez izatea litzateke. Ahoz abo eta batez ere familien bitartez zabaldutakoak dira".

Hiru Trukuk kantu hauek bilduko dituen diska kaleratuko du udazken aldera: "bai, diska bat grabatzeko asmoa daukagu hirurok eta, bestalde, aurten ere beste

diska bat grabatuko nuke oraingo taldearekin; oso gustora ari naiz beraiekin eta sasoiaren nagoela esango nuke".

Ruper ezin izango da Pazkuetan hemen izan ("urtetan ez naiz Bergaran egon") hainbat konpromezu baitauka, tartean irakurtaldi bat Madrilera Círculo de Bellas Artesen Bernardo Atxaga idazlearekin batera. "Parrandazalea naizen? Bai bai, baina ez bereziki. Ez daukat ideia hori neure buruaz baina ez naiz ezetz esaten duen horietakoa".

**Asteazkeneko emanaldian azken urteotan bildu izan dituzten kantu zaharrak (baladak nagusiki) eskeiniko dizkigute**

## Baxatoxak, baxatoxak...

Oñatin goiko kaletik zezanak agertzen diren letxe, guri, udaberriarekin batera, horrela-ze etortzen zaizkigu Pazkuak urtero.

Urteak joan, urteak etorri, aurtengo Pazkuak laugarrenak izango dira espetxeratu nindutenetik eta jaixetan egoten zen giroari buruz ditudan oroitzapenak zaharkituta egon daitezkeela jakin arren, ez dut uste gauzak ezer asko aldatuko zirenik giro aldetik; bergararrok parranda kontu horretan beti "mundialak" izan garelako, eta holako jendea dagoen herri batean jaixak ere "mundialak" behar direlako izan derrigorrez. Zalantza izpirik gabe, inguruko onenak bai!!

Jaixetako beste arlo bat ikutuz; Pazkuetan "Jaiak bai, borroka ere bai" leloaren filosofiari jarraituz herriko presoen alde zein intsumisioaren alde antolatuta diren ekintzek parte hartzearen aldetik beti izan dute erantzun oparoa, eta ziur nago aurrerantzean ere horrela izaten jarraituko dutela, arazo hauek konpontzen ez diren bitartean. Beraz, hortan ere bergararrok bikain.

Bada, ordea, asko kezkatzen nauen beste gauza bat; hau da: inguruko beste herritarren aldean gure hizkuntzaz dugun jarrera axolagabea, nahiz eta akats hau ez izan bakarririk jaixetakoa, urte guztiko islada baizik. Guzti honengatik EHEK orain dela urte batzuetako Pazkuetan "Ligatuin-Ligatuik euskaraz" plazaraturiko kanpaina hari jarraipena ematea ez legokeela gaizki iruditzen zait; era horretan sortuko diren bikoteak aurrerantzean ere Euskaraz mintzatuko direlako; hau, Euskal Herriari egon geniezaiokeen mesede preziatuena izanik.

Besterik gabe bihotz-bihotzez eta inor baztertu gabe, ondo igaro ditzazuela Pazkuak.

JOSE LUIS LOIDI

## Alkatearen erantzuna

Jaun/andre agurgarriak:

Pasa den 94-04-29ko Berrigarán, 147 zk.an, nire kontra idatzita eta Gazte Asanblada anonimo baten izenean agertu zen informazioa dela eta, lehenago eta behin nire nahigabea adierazi nahi dut aldizkari horrek idatziaren egilearen edo egileen izen abizenak eman nahi ez izateagatik; horrela, nire kontra eta Ministerio Fiskalaren kontra botatzen ziren salaketak babesten ari baita.

Aldizkariaren erredakzio arduradunei gogoritzen diet ezin dela inolako komunikaturik argitaratu egilea ezagutu barik edo identifikatu barik; hori horrela aitortzen baitzuen Berrigararen erredakzio-taldeak 93-11-12an kaleratutako 126 zk.an. Gaiari dagokionez, berriz, eta edukia guztiz maltzurra denez, gertatutakoaren berri eman nahi dut, Berrigararen irakurleek informazio kontrastatua izan dezaten.

Gaztetxea hustu ondoren Udaletxean gertatutakoa ondo ezaguna da, eta bere egunean, zuzenean kaltetua izan nintzenez, salaketa aurkeztu nuen udal honetako Instrukzio Epaitegian. Geroago, giro txarrik ez sortzeko eta gure udalerriko elkarbizitza lasaiagoa izan dadin, kendu egin nuen salaketa partikularra, prozedura penalean parte izateari uko eginez. Salaketa partikularra erretiratu arren, gertaerak, ustez delitu izan daitezkeenez eta beren kontra ofizioz jo daitekeenez, Ministerio Fiskalak ahozko epaiketa irekitzea eskatu du.

Aurreko gertaerak nire aldetik fede txarrez egindako egintzatat eta Ministerio Fiskalarekin egindako azpi-jokotzat jotzen dira aurrez aipatzen dudana kartan.

Datuak argi askoak dira eta ez dute beste komentariorik merezi; argi dago kartaren edukia desprestigio politiko eta pertsonala besterik ez duela lortu nahi; nire edozein ihardura, iraindu nindutenentzat edo defenditu nindutenentzat aldekoena izanda ere, oker inter-

pretatzen da. Horregatik, karta hau nire desprestigio pertsonala eta politikoa helburu duen kanpaina bateko zati bat baino ez dela ulertzen dut.

VICTORIANO GALLASTEGI

## Merkatuaren inguruan

Berrigarako azken alean (149. ean) Merkatu berriaren kostuari buruzko informazioa ematen da. 1991ko apirillean herri honetako alkate nintzelarik, "Construcciones y Dragados S.A." enpresari eraikuntzaren adjudikazioa egin niola dio ale honek.

Informazioaren jatorria Berrigarako kazariekin egiaztatzerakoan, Udaletik datorrela jakin dut eta alkateak berak, Vitoriano Gallastegi J.a izan da, horrela publikatzeari eutsi diona.

1991ko apirilaren 29an egindako Udal Batzar Nagusian Vitoriano Gallastegi J.ak ere parte hartu zuen eta garai hartan EAJko zinegotzia zen. Egun horretako aktan udalbatzaren gehiengo osoz hartutako erabakia azaltzen da, eta horrela agertzen da: "Lizitazioa ontzat eman eta kontratua behinbetikoz Construcciones y Dragados S.A. enpresari adjudikatu, merkatu berriko obrak egiteko 189.502.406 peztan".

Aipatutako erabaki honetan ni ez naizela obra hauek adjudikatu zituena eta Berrigarán azaltzen den adjudikazioaren diru kopurua ere, ez dela egia ikus daiteke.

Vitorianok jakin badaki alkateari ez dago kiola mota honetako obrak adjudikazioa. Ez dakit zer arrazoi izan duen egia ez den informazio hau emateko. Berari dagokio hau argitzea eta eskatuko nioke zuzenak ez diren datu hauek zuzentzea komunikabide honen bidez.

JOSE LUIS ELKORO

## Tiira biraka

J.M. EZENARRO



◆ **Euskal Jaia**

Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastoletako kultur batzordeek eta Xamatx dantzataldeak ekainaren 12rako Haurren Euskal Jaia antolatzeari ekin diote. 400 bat haur etorriko dira eta haur hauei bazkaria beraien etxeetan emateko prest daudenek Aranzadi Ikastolara jo edota 76 26 76 telefono zenbakira deitu dezakete.


◆ **AEK**

Bergarako AEK-k irakasleak behar ditu datorren ikasturterako. Interesatuentzat, irakasle izateko ikastaro bat antolatuko da. Interesatuak 76 05 18 telefono zenbakira deitu dezakete, goizez.

# Literatur lehiaketa

*Sariak igandean, 12etan, Zabalotegin banatuko dira*

Begarako Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako X. Literatur Lehiaketako sariak banatuko dira Zabalotegiko aretoan igandean 12etan. Lehen taldean (1986-87an jaiotakoak) Maite Bolibar, Aitziber Plazaola eta Izargi Vega izango dira sarituak; 2. taldean (1984-85) Larraitx Madariaga, Uxue Amasorrain eta Mikel Alvarez; hirugarrenean (1982-83) Eneritz Muguruza, Leire Jiménez eta Mikel Lópezek jasoko dituzte sariak; 1979-81 bitartean jaiotakoan artean Maite Blanco, Karlos Aldai eta Mikel Larrañaga izan dira onenak epaimahaiaren iritziz; eta 1974-78ra bitartekoan artean,



Jon Sanchezek saria jasoko du 16-20 urte bitartekoan taldean.

berriz, Oier Bolibar, Ion Sanchez, Marta Gomez eta Rafi Kintana, Gorka Nin Laskurain, Aitor Gabilondo, Iñigo Murua-mendiaraz, Noelia Aldai

eta Xabier Zabalarentzat izango dira sariak. Azkenik, 1973 urtea baino lehenagokoei zuzendutako kategorian Iosu Alberdik jasoko du sari bakarra.

**313 lan jaso dira**

Guztira 313 lan jaso dira (iaz baino 10 gehiago) eta epaimahaiak 5. taldean izan den maila goripatu nahi izan du, hama-bosten bat lan oso maila onekoak zirela azpimarratuz.

Lehen hiru taldeko sarituek material didaktikoa jasoko dute eta gai-nontzeko taldeetan, berriz, saridunek diru sari bikainak eskuratuko dituzte.

**Zeureganatu batzuk**

# Ray-Ban®

6.950 PTA.N

Bizitzari begiratzeko duten eragatik. Originalak. Genuinoak. Ez etsi. Izugarri gustatzen zaizkizu. Zeuregana itzazu.

*J. Larrañaga*  
OPTIKA  
MULTIOPTICAS  
BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

**MULTIOPTICAS**  
Beti zuri begira

◆ **Eusko Alkartasunak Hauteskunde Europarrei buruzko informazioa eskaini**


Ekainaren 12ko Hauteskunde Europarrei begira Bergarako Eusko Alkartasunak informazio eta argideak eskeiniko dizkie interesatue Barrenkaleko 18ko Egoitzan, goizeko 11etatik 12.30etara eta arratsaldean 6etatik 8etara.

◆ **Jaietako painueluak Plazan salgai**

Aurten bere X. urteurrena ospatzen duen Xamatx dantzataldeak jaietako painueluak jarriko ditu salgai Plazan 300 pta. ren truke. Batzen den diruarekin jantzi berriak egiteko asmoa du Xamatzek.

◆ **Musika Eskolaren herri bazkaria hilaren 29an**

Maiatzaren 29an Espoioan izango den Udaberriko Kontzertuaren ondoren, herri bazkaria antolatu du Bergarako Musika Eskolak. Txartelak Lazkano oinetakodendan edota Musika Eskolan bertan erosi daitezke 2.000 pta. tan (gazteentzat 1.000 pta).



laz eztabaida biziak izan ziren jaietako txekorketa zela eta.

**Igandeko zezenketaren inguruan**

*Udalak ez dezala zezenketarekin zerikusirik izan eskatu da*

Zezenenganako Errespeturako Batzordeak Udalak ez dezala zezenketarekin zerikusirik izan eskatu du idatzi baten bitartez. Batzorde honek Udalak beharrezko permisoak ez jestionatzeko, ganaduzainekin izaten diren jestioen ardurarik ez hartzeko, sarrera salmentan parterik ez hartzeko eta koadrilen artean zezenketa ez promozionatzeko eskatzen du aipatutako idatzian. Era berean, plaza mugikorren instalaketa ez onartzeko eskatzen dute; "honenako ekintzetarako benetako plaza tradizionalak daudela uste du-

gu. Programatutako ekitaldi guztiak Udalak goitik behera aztertzea nahiko genuke, tratu txarrik dakarren ekitaldirik ez izateko, iaz basurdekuma baten harrapaketaekin gertatu zen moduan eta Ertzaintzak salatu zuena".

Azkenik, honelako ekitaldien aurka direnen eritzia kontutan izateko (iaz 2.400 sinadura jaso ziren zezenketaren aurka, tartean Bergarako ikastetxe edota hainbat kirol eta kultur taldeenak) eta guzti-ontzat beste modu bateko alternatibak daudela gogoratzen du Zezen Errespeturako Batzordeak.

**INFORMATIKA**

• **PROGRAMAK:** Word eta QuarkxPress

• **NOIZ:** ekainak 4, 11, 18 eta 25

**ORDUTEGIA:** larunbatetan 10etatik 13etara

**IZEN EMATEA:** maiatzaren 31a baino lehen JARDUNen (76 08 19)


**PREZIOA:** • Bazkide direnentzat, 6.500 pzta.  
• Ez direnentzat, 7.500 pzta.

**MACINTOSH**

**IKASTAROA**

**ANTOLATZAILEA:**  
**JARDUN**





**IRALA**  

---

**AHOLKULARITZA**



- **TRAMITAZIO SOZIAL ADMINISTRATIBOA**•
- **TRAMITAZIO ETA KUDEAKETA FISKALA**•
- **KONTABILITATE OROKORRA**•
- **KONTABILITATE JURIDIKO-LABORALA**•
- **ASEGURUAK**•

**Irala kalea, z/g BERGARA. Tfnoa: 76 33 72. Faxe: 76 57 85.**

**AQUILINO**

*Margo lanak eta apainketa, E.M.*

- **ERA GUZTIETAKO MARGO LANAK**
- **PAPER MARGOTUAK**

**ARIBAR, C-4 Poligonoa**  
**San Juan auzoa. 20.570 BERGARA**  
☎ (943) 76 02 78 - 76 39 50


# MALTZAGA-URBINA: Interbentzio Gune Partehartzaileen erabakiak plazara

**Interbentzio Gune Partehartzaileetan (IGP-NIP) parte hartu duten 300 biztanle ingururen artean, Maltzaga eta Urbinaren artean errepide azkar bat egin eta Deba Arroko errepidea hobetzea izan da eritzi nagusia.**

Aurkeztutako 4 proposamenetatik hori izan da erantzun onena jaso duena (% 41,25). Oraingo errepidea hobetzearekin bakarrik proposatzen dutenak % 38,9a izan dira; Maltzaga eta Urbinaren artean errepide azkar bat egitea nahikoa dela % 15,5ak uste du; eta ezer ere ez egitearen aldeko eritzia eman du % 1,3ak. Azkenik, % 2,9ak ez du inolako erantzunik eman. IGPeK atzera bota dute A-8 autopistaren peajea luzatzea errepide berria egin ahal izateko fondoak

lortzeko. Beren ustez Maltzaga-Urbina peaje gabekoa izan beharko litzateke. Administrazioak, berriz, 2003 urtetik aurrera peajea kobratzen jarraitu eta Maltzaga-Urbina ere peajea jarri nahi du. Azken hau zehaztu barik dago oraindik, inguruan bizi direnei ez kobratzeko aukera ere badago eta. IGPeK fondo publikoekin ordaindu nahi dute Maltzaga-Urbina baina formula mixto bat erbiltzea ere ez dute baztertzen.


IGPen ardura eraman duen GIZARTEAZ azterketa sozialen erakundeak DEBASARI emaitzen berri eman dio. Debasa Maltzaga-Urbina eraikitzeke sortu den erakundea da. Erakunde publiko honetan Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiek parte hartzen dutelarik.



Maltzaga-Urbinari buruzko iritziak plazartu dituzte IGPeKok.

**Aitor Iturriaga  
IGPetan  
jardundakoa**

*"Nahiz eta tresna egokia izan gauzak hobetu daitezke IGPetan"*



**- Zer nolako balorazioa egingo zenuke Interbetzio Gune Partehartzaileez?**

- Nahiz eta balorazio ona egin eta tresna egokizat hartu, ezin da izan debate publikoa sortzeko modu bakarra. Benetako debatea gizarte osoan eman behar da eta informazioa zabaldu. IGPeK ez itxi, ez dezatela izan informazioaren eksklusibitatea.

**- Kaleratu diren emaitzen inguruan zerbait argituko zenuke?**

- Bai, formula mistoa aipatzen denean ez da peajea ezertarako aipatzen, baztertuta geratzen da. Eta bidea konpontzea aipatzen denean Gatzaga eta Landako biztanleen komiteak landutako proiektu tekniko hartzen dugu eredu; ez partxeo bat, obra on bat eskatzen da.

**- Sistema hobetu egin daiteke?**

- Bai. 80 bat galdera erantzun behar izan genituen, test modukoak ziren eta emaitzak ateratzera-koan interpretazio eta konklusio ezberdinak plazaratu dira, gauza nahiko garbi dagoenean. Nere ustez, hori ez gertatzeko, galderak gehiago zorroztu eta zehaztu beharko lirateke.

Bestalde, euskararen erabilpena eskasa samarra izan da eta IGPeK euskaraz lantzeko aukera egon beharko litzateke; oraingoan behintzat ez da egon partehartzaileen artean erdaldunak zirelako.

Era berean inplikazio gehiago daukaten herritarren presentzia indartu eta ponenteen artean hainbat talderi (ekolojistikak, taldeak, etab...) hurrengo baterako gauzak erreztea eskatuko nuke.


# AB

Ibarra kalea, 6  
☎ 76 19 40  
20.570 BERGARA

## ALTOS HORNOS DE BERGARA E.A.

### ALTZAIRUGINTZA ETA LAMINAZIOA

# Txuringo



## Jatetxea

- **MENUA ETA KARTA**

- **EZKONTZAK**

- **JAUNARTZEAK**

- **TXERRIKUMEAK,  
BILDOTSA, BASERRIKO  
OILASKOAK LABEAN  
ERRETA...**

**OSINTXU** ☎ 76 48 63

# Berrigazte

ikasleen

orriak

## ikastolako jaia

**Urtero bezala** Mariaren Lagundia ikastolak aurten ere bere jaia ospatuko du. Ekainaren 5ean izango da. Baina aurten berezitasun bat egongo da: kirol-kanpo berriak inauguratuko ditugu. Aurten ez dira urtero bezala zezenak egongo, ez bait daukagu horretarako leku aproposik. Pena bat da, oso ondo pasatzen genuelako. Bi goxoki denda egongo dira 8. mailakoek antolaturikoak. Taberna egongo da, gurasoek antolatutakoa, baina aurten ez da alkoholik egongo ikastolako arduradunek esaten dutelako gure heziketarekin koherentzia gordetzen saiatu behar gara. Beste berezitasun bat ere egongo da: gaztelu puzgarriak egongo dira umeentzat. Eta gehiago nekatu gabe, hemen doakizue gure ikastolako jaiaren egitaraua. Herri osoa gonbidatuta dago. Anima zaitezte, ongi pasako duzue!!



### EGITARAUA

- 10.00:** Eukaristia.
- 10.45:** Kalejira animatua.  
Pisten inaugurazioa.  
Aureskua.
- 11.15:** Partiduak:  
Saskibaloia  
Futbitoa (7., 8. eta B.O.eko 1. eta 2.ekoak)  
Jokuak (O.H.O.ko 1. mailatik 6.era)  
Railliea (5. mailatik gora).  
Paella txapelketa.
- 13.30:** Musika Eskolakoek kontzertuak.
- 14.00:** Bazkaria.
- 17.00:** Txirrindulari karrera (OHOk 7. mailatik gora).  
Ginkana (OHOk 3. mailatik 6.era).  
Gimnasia Erritmikakoek erakustaldia.
- 18.00:** Sari banaketa.
- 19.00:** Kantaldia.

# MARIAREN LAGUNDIA

15. ZENBAKIA

## ESKOLAKO JAIA

Ekainaren bostean  
eskolako jaia  
talde polita eta  
giroa alaia  
partiduak badaude  
baita erre mezia  
hola guztiok pozik  
zahar ta gaztia.

## BERGARAKO JAIAK

Herriko jai hauetan  
gauian kalera  
orgasmo ta zerbeza  
asko edatera  
gero nobixiakin  
ongi pasatzera  
ondoren mozkor-mozkor  
buelatu etxera.

## DATORREN URTEKO ASMOAK

Datorren urterako asmoak  
dira oso desberdinak  
batzu institutura dijoaz  
ta hemen gelditu bestek  
pena handia ematen digu  
guztiak separatzeak  
zeren eta hamaika urtetan  
gara lagun maiteak.

## DATORREN URTEKO ASMOAK

Lagunak betiko izango gara  
ta ez gara inoiz ahaztuko  
hamaika urtetako lagunak  
bait dira oroimenerako  
gure umetako garai onak  
inoiz ez dira ba joango  
ta kanpoan egingo ditut nik  
lagunak urtetarako.

OHOko 8. MAILAKO IKASLEAK

b

e

r

t

s

o

t

a

n

## ezetz igarri

Zuzentzat omen naute  
eta deitzen naute,  
baina bere etxean  
inork ez nau maite.

VIZITSNR

Zerez beteta pisatzen  
du upel batek  
gutxien?

ZOTUZ

Zer animala da hankak  
buruan dituena?

ZORRIA

CALAVERAS HIRUKOTEA

## iritzia

### GAZTEON ETORKIZUNA

Gazteok gure etorkizuna oso beltza ikusten dugu langabezian dagoen pertsona kopurua gero eta altuagoa delako. Karrera bat bukatuta daukaten gazteek oso zaila izaten dute lana aurkitzea. Zer egingo dute ba inongo ikasketarik gabe kale gorrian aurkitzen diren gazteek? Egoera horretan aurkitzen direnek, langabeziaren aurrean irtenbide desberdinak ematen dizkiete euren bizimoduari: batzuk, prostituzioaren mundurantz abiitzen dira, beste zenbaitek, berriz, droga saltzeari ekiten dio.

Egoera hau denon arazoa da, prostituzioko bidea ez baitu bakarrik gazteak aukeratzen, langabezian dagoen beste zenbait andrak ere bai. Eta inork ez gustoz. Noski!!

Guk airean uzten dugu galdera, inork erantzun nahi badigu: nork emango dio arazo honi dagokion irtenbidea?

ESNESI

Hezkuntza

# Kurtso amaierako azterketak

**- Zein da examin bat gertatzeko modurik egokiena?**

- Ikasteko teknikak zeresan haundia dauka. Gehiengo batek azken orduan gertatzen ditu azterketak eta horrek erlazio zuzena du azterketara urduri joatearekin, ikasi bezain azkar gauzak ahazten joaten baitira. Egokiña eta guk behin eta berriz ikasleei errepikatzen dieguna eguneroko lana litzateke, klase orduetatik kanpo 3 bat ordu ikastea. Baina 15-16 urteko neska-mutilek ez dute kezkarik aurrera begira eta eguneroko bizitzan murgilduta egotea nahiago dute. Gure helburua eguneroko lanak etorkizunari begira duen garrantziaz ikasleak mentalizatzea litzateke.

**- Azterketek ez dute garrantzi gehiegirik?**

- Beharbada bai, azken batean ikasle baten lana neurtzeko orduan examinak primatzen baitu. Gainera Hezkuntza Sistema antolatuta dago-

en moduan, nahiz eta helburua hori ez izan, azterketekin kompetibitate bat sortzen da ikasleen artean. Klaseak aspergarriak ez bihurtzearekin batera, gure erronka nagusia eguneroko lana baloratzea izan beharko luke. Azken batean badi-relako beti azken orduan



**GOTZON IPARRAGIRRE**  
(irakaslea)

egindakoarekin azterketak ondo egiten dituzten zenbait ikasle. Hori ez gertatzeko ikasleen artean jakinmina piztea derrigorrezkoa da.


**- Azterketa desberdinak ere badira...**

- Ikasteko orduan test bat bada, memoristikoa-go da ikasketa metodoa eta onena materia behin eta berriz irakurri eta hitz klabeekin geratzea litzateke. Galdera luzeak direnean, berriz, gaiei zentzua hartzea komeni da ideia orokor bat izan eta gero norberak gai hori desarrolatzeko. Neurtzeko orduan ere badira desberdintasunak; matematiketan adibidez balore absolutoagoak dira eta hizkuntzan, berriz, nahiz eta erizpide batzuk argi izan, azterketak zuzentzerakoan erizpide horiek ez daude hain argi, konparazioak sortzen baitira.

**- Zelan gutxitu daiteke ikasleen tentsioa?**

- Nekeza da, azterketak banatzerakoan ere tentsio hori nabaritzen da klasean. Baina nahiz eta jendea oso ondo gertatuta egon jendeak nerbio asko izaten ditu. Ikasleek betiko kezka izaten dute, zer galdetuko ote dieten eta nahiz eta ondo jakin huts egiteko beldurra daukate. Azken egunetan etxean sartu eta ordu pilo bat ikasten egon beharrean hobe da kirol pixkat egin tentsioa deskargatzeko eta 8 bat ordu bat lo egin. Jaiak datozela eta, gazteei ondo pasatzeko baina gero *kailua* eman dezaten eskatuko nieke.

## "Garrantzitsuena eguneroko lana da, azken orduan miraririk izatea oso zaila baita"



Azterketa garaian ikasleek nerbio asko izaten dituzte.



## IPIÑARRI ZERRATEGIA, S.L.

Eraikuntza, arozaintza, altzari eta enbalaietarako "Insignis pinu", "Alerce" eta abarren egurraren zerraketa eta lanketa.

Ibarra z/g, posta kutxa 184 20570 BERGARA ☎ 76 15 93

# PAZKUAK 94

bergarako jaixak



# kutxan



# merkeago daukazu

## ETXEBIZITZA - KREDITUAK

Badakizu: **kutxak** eskaintzen dizu finantzaketarik onena. Eta orain, gainera, nahi al duzu, etxebizitzari dagokionez, **kutxak** zure alde egin dezakeen guztiaz hitz egin dezagun?

Nahi duzun etxea bilatzen eta aukeratzen laguntzen dizu. Erosteko eman behar dituzun urrats guztien gainean aholkatzen zaitu. Gehien komeni zaizun finantzaketa ikertzen du zurekin batera. Eskubidea duzun onura fiskalen berri ematen dizu. Baita behar dituzun aseguruena ere... Dena, zure oraingo hipotekari dagokiona ere barne, **Kutxa Etxebizitza-Zerbitzuan**.

Zatoz **kutxako** edozein bulegotara eta berehalaxe jabetuko zara. Orain, etxebizitzarekin zerikusia duen guztia, **kutxan** merkeago daukazu-eta.

etxebizitza



zerbitzua

Informa zaitez zeure sukurtsalean edo dei egiguzu

**900 40 50 60**.ra

DEIA DOHA INIK



... kutxa ...

gipuzkoa donostia kutxa  
caja gipuzkoa san sebastián



Paizkuak



# ALKATEAREN AGURRA

**H**eldu dira berriz ere Pentekoste jaiak eta, beste urteetan bezalaxe, bergarar guztiok agurtu nahi zaituztet.

Urte osoa pasa dugu gehienok kezka eta ardurapean. Bazter ditzagun arazo guztiak, egun batzuez bada ere, eta ospa ditzagun jaiok jator eta alai. Hori da nere desioa.

Udalaren eta neure izenean, jai zoriontsuak izan ditzazuela opa dizuet, bai bertakooi, bai kanpoan bizi zareten bergararroi, bai bisitatuko gaituzuen guztioi eta arrazoi bat edo beste dela medio, gure artean ezin egona duzen bergarar guztioi ere.

Zuen alkatea, VICTORIANO GALLASTEGI.

## Optica P. MANSO

OPTIKO OPTOMETRISTA

**BABES ITZAZU ZURE BEGIAK, HOR DAUKAZU AUKERA:**

GIORGIO ARMANI  
OCCHIALI

Polaroid

POLICE

EMPORIO ARMANI  
OCCHIALI



STING  
OCCHIALI

YVES SAINT LAURENT

ROLLING

VALENTINO

INDO

VOGART

Von Furstenberg  
LUNETTES

GUCCI

VOGUE  
OCCHIALI


Ray-Ban

% 25eko DESKONTUAK  
RAY-BANen MODELO  
GUZTIETAN

Pazkuak



# maiatzak OSTIRALA 20



## Gomendioa

**IZARO**  
**APERIBAI 21 urte**

Lehenengo eguna dela kontutan izanda, juerga gehiegi egitea ere ez da komeni larunbata egun fuertea delako, kanpotik jende asko etortzen baita. Bitorianatxo ikustera ez dakit helduko naizen baina ahal izanez gero ondo dago, nahiz eta orain Plazan erdiak besterik ez garen kabitzen. Barraketatik buelta bat ematea ere ez legoke gaizki; niri adibidez karabinak, noria edo pulpoa asko gustatzen zaizkit. Eta gaueko kontzertua ondo dago Requiem eta Allnightersekin. Plazako dantzaldiak? Jende lasaiagoarentzat izaten dira baina jaietatik gehien gustatzen zaidana dantza egin eta kantatzea da.



**20.00:** Jaiei hasiera emango zaie, etxaflegu jaurtiketa eta **Bitorianatxoren jeitsierarekin.**

Ondoren, **Udal Musika Bandaren kalejira**, hiriguneko kaleak alaituz.

**20.30:** Beheko Estazinoko **barraken irekiera**. Bideberri aldeko **txoznen irekiera.**

**23.00:** San Martin plazan, **dantzaldia** Gau Bela taldearekin

**23.00:** **Rock kontzertua**, Bideberrin: Requiem eta Allnighters.

## ANTIA

ARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri,  
bildots, untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



## DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

## AGOITZ

### Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

# AUKERAN



**20.00:** Bitorianatxoren jeitsierak emango die hasiera aurtengo Pentekoste jaiei.

**Bitorianatxo** zahartuta bai baina aurtan ere juergarako gogoarekin omen dator.

**20.30:** Ostiraletik aurrera betiko **barrakekin** eta aurtengo nobedadeekin primeran pasatzeko aukera izango da. Aldi berean, **Bideberriko txoznak** irekiko dira. Aurtan Jarraik, Amnistiaren Aldeko Komiteak, Miguel Altuna Institutoak, Txapa Irratiak, Ipintza Institutoak, Eta abar eta Kripta musika taldeek eta Bergarako AEKk jarriko dute txozna bana.

**23.00:** Gazte eta nagusientzat musika aukera zabala izango da ostiraletan. Bideberri **Requiem** eta **Allnighters**-en kontzertua izango da eta Plazan izango den dantzaldia **Gaubela** taldeak alaituko du.

ARRAIN  
IZOZTUAK

EGUNEROKO  
ARRAIN FRESKOA

LETE  
ARRAINAK

AZOKA PLAZA

☎ 76 02 44

Paizkuak



# maiatzak LARUNBATA 21



## Gomendioa

**ANE**  
**ARREGI 28 urte**

Nik, egia esan, programari ez diot kasu haundirik egiten, ez ditut iragarritako ekitaldiak jarraitzen. Goizetan ez naiz irtetzen normalean, etxean geratzen naiz, are gehiago ostirala egun gogorra dela kontutan izanda. Larunbatean 6ak aldera irtetzen gara lagunok eta kanpoan afaltzen dugu. Gustatzen zait egoten den giroa, nahiz eta kanpoko jende asko etorri eta agobiante xamarra izan. Martxa ona egoten da eta gu gauean galtzen diren horietakoak gara. Jaigiroa azken momentura arte aprobetxatu behar...

- 9.00:** 14 urtez azpikoentzat XIII. **Marrazki eta margo lehiaketa** libre. Izen ematea Kultur Etxean.
- 10.00:** **Diana**, auzoak esnatu ondoren San Martin plazan bilduz.  
• Bolu auzotik **Udal Txistulari Banda**.  
• Oxirondo aldetik **Kobok Dultzaineroak**.  
• Labegaraietatik **Iosu eta Iokin Soinujoleak**.
- 10.30:** **Mizpirualdera bisita** egingo dute Soinujole, Dultzainero eta Txistulariek.
- 11.00:** Xake Elkartek antolatutako **Xake partidak** eta sariak **haurrentzat**, Zabalotegiko Elkartearen aretoan.
- 12.00:** Elkarteen arteko **Sukaldaritza lehiaketa** Simon Arrieta plazan, trikitilariak alaituta.
- 16.00:** **Xake** azkarreko Euskadiko Txapelketa eta Xakeko "Adiskidetasun Klub"en zirkuitoa, Migel Altuna Institutoan.
- 16.30:** "Pentekoste Feria"ko **pelota partiduen** hasiera Udal Pilotalekuan.  
• Soroa III-Azkarate / Arteaga-Oliden.  
• Etxaniz-Tolosa / Eugi-Errasti (**Txapelketakoa**).  
• Kalonge-Galardi / Badiola-Astarloa.  
Ordu berean, **haur jolasak**, zezen plazan.
- 18.00:** **XAMATZ** Dantza Taldeak "Larrain dantza" eta "Tuterako jota", San Martin plazan.
- 19.30:** **Bonba japoniarrak** plazan.
- 20.00:** **Erraldoi, Kiliki eta buruhandien kalejira** Udal Txistulari Banda eta Kobok-ekin.
- 23.00:** UR Taldearen "Sueño de una noche de verano" **antzerkia**, Mariaren Lagundiko Aretoa.
- 23.00:** **Rock kontzertua**, Bideberrin: Fucking What!, Daxka eta Australian Blonde.
- 23.30:** Ordu berean **dantzaldia** Basakabi Taldearekin, San Martin plazan.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona** pentsuen biltegia.  
**Bioter** produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## TXUKLIN

### BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA



# AUKERAN



**12.00:** Larunbat eguerdian elkarten arteko sukaldaritza lehiaketa iragarri da Simon Arrieta plazan. Trikitilariak ere izango dira bertan eta elkarte ezberdinetako sukaldariak euren espezialitateak puntu puntuan gertatu beharko dituzte lehen saria lortu ahal izanez gero. Urtean zehar beren sukaldeko abildadeak ezkutuan landu ondoren, bada ordua gure herriko *argiñano* eta *subijanak* ezagutzera emateko.

**18.00:** Aurten bere X. urteurrena zelebratzen duen Xamatx dantzataldearen emanaldia izango da San Martin Plazan. Besteak beste, "**Larrain dantza**" eta "**Tuterako jota**" dantzatuko dituzte. Jantzi berriak egin ahal izateko jaixetako painueluak ere salgai jarriko dituzte Xamatzekoek herriko plazan 300 pezetaren truke.



**Pepelu**  
**Ileapaindegia**

Zurradero, 2 behea.  
☎ 76 43 07

**TXURRUKA AUTOAK**

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorenzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT



# "Sueño de una noche de verano"

## UR ANTZERKI TALDEA

*Larunbatean, gaueko 11etan Mariaren Lagundian*



**Erreteriko Ur antzerki taldeak "Sueño de una noche de verano" antzeslana eskeiniko du larunbatean gaueko 11etan Mariaren Lagundiko aretoan.**

Helena Pimienta, taldeko zuzendariaren hitzetan, "Shakespearearen komediaren gaurko irakurketa egin nahi izan dugu eta amodioa da benetakotako protagonista, baina bere manifestazio guztietan: askatzen duen amodioa, kateatzen duena, indarra edota abu-

*lezia dakarrena... Pertsonaiak oihanean barneratu eta han naturak eta instintoek agintzen dutela konturatuko dira. Bertan errealitateak eta fiktizioak bat egingo dute eta pertsonaiek beren pasioak bideratuko dituzte. Eta duendeak gu askatzea erabaki arte ezin izango dugu ezer egin...".*

Ur taldeak hainbat sari lortu ditu bere azken muntaia honekin: Espainiako Eszena Zuzendarien Elkartearen sarietan, zuzendari eta eszenogra-

fia onenarentzako akzesita, El Cairoko Antzerki Jaialdian ikuskizun onenarentzako Epaiaren eta Kritikaren lehen saria edota Eccilla sarietan ikuskizun onenaren saria. Era berean, Lierni Fresnedo aktoriesak sari bat jaso zuen Getxoko Kultur Aretoak emandako "Rosa Agirre" sarietan. Lan honetan, Ana Pimienta, Arantxa Ezkerra, Gerardo Quintana, José Tome, Víctor Criado eta Lierni Fresnedo berak parte hartzen dute.

Ur antzerki taldearen aurreko lanen artean "Ré-mora" (1988) eta "Anti-héroes" (1990) aipatu daitezke. Aurretik Ur talde-

aren jatorria izango litzatekeenak, Atelier taldeak, hamaika lan egin zituen 1979tik 1987ra bitartean, tartean "El ávaro" (Molière), "La cantante calva" eta "La lección" (Ionesco), Shakespearearen testuetan oinarritutako "Xespir" edota "Dantería" eta "Proces a dos" (Helena Pimientarenak).

Bergaran antzestuko duten "Sueño..." lanak ordubete eta 50 minutuko iraupena dauka eta sarre-rak Etxepare, Usoa, Ariznoa edota Kultur Etxean jarriko dira salgai, aurrez erosi ezkerro, 800 pezeta-tan eta takillan 1.000 pezeta-tan. Larunbat gaue-rako aukera...



Shakespearearen komediaren gaurko irakurketa egin nahi izan dute Ur antzerki taldekoek.

**Besteak beste Espainiako Eszena Zuzendarien Elkartearen saria jaso du Ur taldeak antzezlan honekin**

# TELAETXE E.A.

## OIHAL eta OIHAL PUSKAK

Elgetarako bidea (gasolindegitik 300 metrotara, "Cotones Agirrezabal" en ondoan).  
Tfnoak: (943) 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46 / Faxa: 76 56 38 20570 BERGARA.



**AUKERA HAUNDIA OIHAL ETA  
PUSKETAN, METROKA ZEIN  
PISURA.**

**Zetak, kortinak, toailak, yakareak,  
izarak, tapizak, e.a...**

**EDREDOI NORDIKOAK**

**FABRIKAKO  
PREZIOTAN**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN  
ZABALIK (15.00-19.30)**

**GOIZETAN ITXITA**

**ONDO PASA JAIK!!**



**GUIPUZCOANA**

*Paketean garraio eta banaketa*

**BERGARA**

*San Juan Erreka. Elgetara bidea.*  
Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25





# "Zezenari beldurrik ez diot"

## ANTONIO MAESTRE "CHAMACO"

Antonio Maestre "Chamaco" oso ezaguna du-gu herrian, urtero jaie-tan zezenaren aurrean bere trebezia erakus-ten baitigu. Bere hel-burua gaztetan torero izatea zen.

- Nondik datorkizu zezenketenganako afi-zioa?

- Ni Valladolideko naiz eta han beti zezenak ikustera joaten ginen. Eskolan errekreo orduan batzuk zezenen papera eta besteek toreoaren pa-pera egiten zuten.

- Ze torero dituzu gustokoenak?

- Lehen Luis Miguel Dominguin eta orain, ber-riz, Enrique Ponce.

- Zergatik deitzen dizute "Chamaco"?

- Duela 32 urte Berga-rara etorri nintzenean, "Chamaco" modan zego-en eta lehen aldiz, 14 ur-terekin, ikusi nindutene-an izen hori jarri zidaten. Textilean lan egiten zuen lagun batek kapa gorri bat egin zidan eta plazara irten nuen toreatzera. Har-rituta gelditu nintzen ze-zenak enbolatuta ikuste-an eta "Pitiari" galdetu ni-on, ea noiz irtetzen ziren nagusientzako zezenak eta harek, guztientzako zirela esan zidan. Baina zezenak ez ziren kapote-ra joaten eta toreatzeko beste era bat asmatu be-

har izan nuen.

- Jaietako zezenekin sustorik izan al duzu?

- Gogorrena Santa Ma-rinako jaietan: zerbikale-tako fisura izan nuen. So-raluzen ere susto ederra izan nuen. Oilagorra el-kartean afaldu ondoren "Kapaña" eta Txurrukare-kin Soraluzeko jaietara joan nintzen. Zezen pla-zan sartu bezain laister zezenari deitu nion eta norbaitek bultzatzen zidan. Zezenak hankaz go-ra bota ninduen eta an-bulantzian eraman behar izan ninduten. Kolpeak hartzea normala da.

- Zer eduki behar da zezenaren aurrean jar-tzeko?

- Asko ibili behar da. Niri mutikotatik gustatu zait eta besteek egiten dutena ere ikusten dut. Urtean behin, astebetez, semearekin batera Valla-dolid aldera joaten gara zezenekin ibiltzeko. Tre-bezia ere izan behar da. Gero berotzeko tragoxka bat edatea ere ez dago gaizki...., baina pasatze-ke.


- Inoiz, pentsatu al

### Bergarako "sobresalientea"

duzu torero izatea?

- Bergarara etorri nin-tzenean, 15 urterekin, "maletila" (torero izateko aukeraren bila irtetzen zuten gazteak) bezala ihes egin nuen. Sevilla-raino heldu nintzen eta han, guardia zibilak hartu eta kalabozoan denboral-ditxo bat eman nuen. Nire

aitak handik atera behar izan ninduen. Madrilen, Salamancan etabetan izan nintzen zezenak tent-tatzen. Orain gazteek toreatze eskolekin au-kera gehiago dute. Hale-re San Lorentzoko jaie-tan, "Martinin" eta beste lagun batekin, txekor ba-tzuk toreatu genituen.



"Gaztetan Sevillan kalabozoan izan nintzen"



**KORTA-ZAR**

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO  
9 ETATIK ZABALIK**

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62



# maiatzak IGANDEA 22



## Gomendioa


**JUSTI LARRAÑAGA**  
58 urte

Bueno, nik lehen, afalostean, Ariznoan izaten ziren dantzaldiak botatzen ditut faltan. Bestela, entzierrua ikustea gustatzen zait, nahiz eta sekulako disgustua hartu zezenak norbait harrapatzen badu... Gero, ba lagunekin elkartu eta parean tokatzen dana ikusi: bandaren kontzertua, kale-antzerkia... Eta pelota partiduak ere izugarri gustatzen zaizkit. Txekorketa? laz izan nintzen eta giro polita zegoen baina bultza egingo didanik ez badago ez dut uste joango naizenik. Baina, bueno, jaietan jendea dibertitu dadila eskatuko nuke bakarrik.

- 8.00:** **Udal Txistulari** bandarekin, **alborada**.
- 8.30:** **Turrutarra** txarangarekin Zezen plazara.
- 9.00:** **Entzierroa** Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.
- 9.00:** 1go eta 2. mailako afizionatuentzat **Txirrintulari lasterketa** "LVIII Pentekoste Saria".
- 9.00:** Taldekako **xake txapelketa** "Bergarako Hiria Saria". Migel Altuna Institutoan.
- 11.00:** **Meza Nagusia** San Pedro Elizan, Udalbatza partaide delarik eta Udal Musika Banda eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- 11.30:** Hamabost urtez azpiko haur bikoteentzako **Euskadiko XVII. Dantza Askatuko Txapelketaren** kanporaketak, Seminarioko patioan. Lehenengo 10 bikoteak sailkatuko dira. Euria bada, Novedades Aretoan.
- 12.00:** **IX. Literatur Lehiaketaren** sari ematea, Zabalotegiko Aretoan.
- 12.30:** **Udal Musika Bandaren** kontzertua Espaloian (programa ondoko orrian).
- 16.30:** **Piraguismo froga**, Deba ibaian.
- 16.30:** Pelota partiduak frontoian:
  - Telletxea-Oregi / Badiola I-Lasa III
  - Retegi-Elkoro / Unanue-Zezeaga (**Txapelketakoa**)
  - Intxaurrondo-Andueza VI / Kalonge-Andueza V.
- 17.30:** San Martin plazatik zezen plazaraino **Kalejira, Turrutarra** txarangak lagunduta.
- 18.00:** **Txekorketa**, Zezen plazan Nobilleroak: Alvaro de la Calle, Francisco Marco Oyarzabal eta Jose Manuel Perez San Jose ordezkari lanetan. Nafarroako Villafrancako "Hnos. Idiazabal" ganadutegiko 4 txekor toreatuko dituzte.
- 18.00:** Haur bikoteentzako Euskadiko VII **Dantza Askatuko Txapelketa** Seminarioko patioan, Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- 22.00:** Suzko zezena, San Martin plazan.
- 22.30:** "Ongi etorri etsai hori" HIKA Taldeak emandako **kale antzerkia**, San Martin plazan.
- 24.00:** **Dantzaldia** Txatanuga Futz Band orkestarekin San Martin plazan.



# AUKERAN



**9.00:** Igandean Miguel Altuna Institutoan Bergara Hiria Xake Txapelketa jokatu da. Besteak beste, **Brostein** Nazioarteko Xake Maisu Haundiak hartuko du parte. Errusiarrak Oviedoko Unibertsitateko taldea ordezkatzuz jokatu du Bergaran.

**12.30:** Bandaren kontzertua Espaloian. "Tanhäuser" (Martxa handia, R. Wagner), "Tanhäuser" (Obertura, R. Wagner), "El caserío" (Fantasía, J. Guridi), "A sentimental selection" (P. Scheffer) eta "Happy tronbones" (R. Ares) eskeiniko ditu.

**18.00:** Ohizko paseiloa egin ondoren, pikatzailerik gabeko txekorketa igandean zezen-plazan.



## ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparateak...**

Amilaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

## ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

## KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

# AZPEITXI


Aranerrika, 13 behea ☎ 76 55 00

*Jatetxea*

Paizkuak



## maiatzak ASTELEHENA 23



### Gomendioa

**FERNANDO  
LASKURAIN** 11 urte

Bueno lagunekin entzierrua ikustera irtengo naiz goizeko lehen orduan eta gero beharbada Haurrentzako Jolas Parkera edo barraketara joango gara. Barrakarrik onenak? Canguro eta Tropicala baina seguruen aurten karabinetan ibiliko gara gehiago. Bakiletan ere irtetzeko asmoa daukagu, baina oso gertutik ez gara ibiliko. Eta ez dakit patin eta patinete karreran parte hartuko dudan.

Aurten espero dut lagako didatela gaez irtetzen. Horrela bada, 12-12.30ak arte dantzaldian izango gara.

**8.30:** Kalejira, **Los Incansables** Txarangak alaituta.

**9.00:** **Entzierroa** Barrenkaletik Zezen Plazaraino. **Ondoren enbolatuak.**

**11.30:** Eguerdiko ordu 1.30ak arte Seminarioko patioan haurrentzako **Jolas parkea**: karrak, gaztelu puzgarriak...

**11.30:** Eguerdiko ordu 2ak arte **barrakak** haurrentzako prezio berezietan izango dira.

**11.30:** **Udal Musika Bandaren** kalejira.

**12.30:** Udal Musika Bandaren **kontzertua**:

- "Oilagorra". Marcha (1. audizioa). A. Gz. Chirlaque.
  - "Jupiter". Suite "The Planets", G. Holst.
  - "My first chorus". Big Band. J. Briver.
  - "El año pasado por agua". Hautaketa. Chueca.
  - "Miss Saigon". Musikala. C. M. Schomborg.
- Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque.

**16.30:** "Pentekoste Feria"ko **pelota partiduak** Udal Pelotalekuan.

- Goñi-Nagore (4 1/2)
- Arteaga-Balardi / Urionaguena-Oliden
- Gabilondo-Alberdi III / Badiola II-Galardi.

**16.00:** Seminarioko patioan jarritako haurrentzako **Jolas parkearen jarraipena.**

**18.00:** **Herri festa**, Los Incansables txarangak animatua, Zezen plazan.

**19.00:** **Patinete eta patin lasterketa**, JARDUNeko gazte taldeak antolatuta, Bideberrin.

**23.00:** Nueva Alaska Kanp Musikarekin **dantzaldia**, San Martin plazan.

**23.30:** **Rock kontzertua**, Bideberrin, Bost Axola eta Anestesia taldeekin.

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

Jai zoriontuak opa dizkizuegu

# MEKOLALDE

☎ 76 50 18

## taberna

Mekolalde

# AUKERAN



**9.00:** Bigarren **entzierroa**. Barrenkaetik zezen-plazaraino bide amaigabea. **Udaltzaingoak** adierazi duenez, entzierroak goizeko 9etan hasiko dira eta hasi aurretik etxaflegu bat jaurtiko da. Entzierroa amaitu bitartean atariko atea itxita edukitzea eskatzen da eta zezenak zezen-plazara sartzen direnean bi etxaflegu jaurtiko dira. Horiek entzundakoan lasai irten zaitezke kalera.

**Goiz eta arratsalde:** Jolas parkea. Goizeko 11.30etatik 13.30ak arte eta arratsaldeko 4retatik 8etara bitartean Seminarioko patioan haurrentzako jolas parkea antolatu da, karrak, gaztelu puzgarriak... Era berean, 11.30etatik 14.00ak arte barrakak prezio berezietan izango dira. Eta arratsaldeko 7etan patin eta patinete lasterketa Bideberrin hasita.

LOREAK MUNDU OSOAN

N  
I  
N  
I  
K  
A

FLEUROP

INTERFLORA

JAI ZORIONTSUAK IGARO DITZAZUELA

L  
O  
R  
A  
D  
E  
N  
D  
A

# EDEL

**TAPIZDENDA**

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.**


Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14, BERGARA**

Pazkuak



# maiatzak ASTEARTEA 24



## Gomendioa

**PATXIKIN  
IGARTUA 52 urte**

Ni zezen barik ezin naiz bizi, bai? eta entzierrua eta soka-muturrera joaten naiz beti. Hura amaitutakoan Danok Bat elkartean karakolak izaten ditugu eta txikiteoan hasten gara kuadrilan; 20 bat lagun elkartzen gara eta ondoren bazkaria Oxirondon egiten dugu, Jesus Txurrukak gertatuta; bazkalostean folloia tutean eta musean eta arratsaldean berriz txikiteora, egun beldurgarria da hortarako eta. Bitorianatxo gorunzko doala, gu txikiteoan ibiltzen gara oraindik eta ambienteak markatzen du etxera joateko ordua.

**8.30: Kalejira, Los Incansables** Txarangak alaituta.

**9.00: Entzierroa,** Barrenkaetik zezen plazaraino. Ondoren enbolatuak.

**10.00:** Ollagorra Elkarteak antolatutako **Plater Tiraketa,** San Juan auzoan.

**11.30: Herri Trenaren** ibilera, Fraiskoauri plazatik irtenda.

**11.30:** Musika Bandaren kalejira.

**12.00:** Aranzadi Ikastolako dantza taldeen erakustaldia.

**16.30:** "Pentekoste Feria"ko **Pelota partiduen finalak** Udal Pilotalekuan (ikus ondoko orrian).

**17.00: Herri Trenaren** ibilera.

**18.00:** JARDUNek antolatutako **Brusa Lehiaketako** brusa, argazki eta esaldiekin **erakusketa,** San Martin plazan.

**18.30: Kuadrilentzat jokuak** zezen plazan, "Los Incansables" Txarangak alaituta.

**19.00: "Los Incansables"** Txarangarekin kalejira.

**20.00: Baltsa lasterketa** Deba ibaian, EGUZKI, BETI BUSTI eta JARDUNek antolatuta. Lehenengo saria: 15.000 pzta  
Baltsa originalenari: 15.000 pzta

**20.00: Dantzaldia** EGAN taldearekin, plazan.

**24.00:** Bitorianatxoren igoera.

Egun guztian zehar:

- **Xafre** eta **Zaharra** eta **Izaro** eta **Jon** trikitilari bikoteek.
- **Los Incansables** txarangak.

**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-Taberna**

Eguneroko janariak / Txixizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53



**Santiveri**

**IZADI**

PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**SUBIJAI**

**Gazteentzako moda**

Irizar, 1 ☎ 76 42 41



# AUKERAN



**16.30:** Pentekoste Feriako pelota finalak. Larunbateko aurrelari galtzailea eta Lasa III.ak Urionaguena eta larunbateko atzelari galtzailearen aurka jokatuko dute. Jarraian Pazkuetako finala larunbat eta igandeko bikote irabazleen artean eta azkenik, eskuz banaka, Astarloa eta Errasti II.a aurrez aurre.

**18.30:** Kuadrilantzako jokuak egongo dira zezen-plazan, "Los Incansables" txarangak alaituta.

**20.00:** Deba ibaiaren baltsa lasterketaren edizio berri bat iragarri da astearterako. Ibilbidea Beheko Estazioko zubitik hasi eta Santa Marinakoan amaituko da eta irabazle zein baltsa orijinalenak 15.000 pta.ko sariak eramango dituzte.

## ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19

BERGARA

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



# "Orduan asko ligatzen genuen"

## ASPERTUARTE

### 70ko hamarkadako herriko txaranga

**Orain 20 bat urte bazen herriko festak alaitzen zituen txaranga bat: Aspertuarte.**

Txaranga horretako kide izan ziren Jesus Bolibar, Fernando Otaño eta Juan Mari Zabaleta "Baleto" k azaltzen digutenez, "Juventudes elkartetik sortu zen eta gebienok Txipiron eta Beti-Ona kuadriletakoak ginen, 40-45 bat lagun; 2 soinu, 2 bonbo, txapekin beste lagun bat, 2 tanbor eta gainontzekoak turutak. 21 urte izango genituen orduan eta Udalak (Luis Laskurain zen orduan Bergarako alkate) jantziak, zapatilak eta txapelak ordaindu zizkigun; 60.000 pta. denera, Seat-600 batek garai hartan balio zuena. Pazkuetako astelehena eta astearta alaitzen genituen eta Gasparreneko glorietan bazkaria ere ordainduta geunkan".

Astean hiru egunez Zabalotegiko lokalean entsaiatzen zuten: "Bi zuzendari genituen: zuzendari musikala eta txarangako benetako bultzatzailea Panti Oregi zen eta Jos Martínez, berriz, alderdi komikoagoa lantzeaz arduratzen zen. Guztira, 20 bat abesti jotzen genituen eta herriko jai guztietara eta inguruko herrietara joaten ginen: Ormaiztegi,

Ordizia, Santa Agedara egiten zen Carabana de la Fraternidad, Santiagora joateko eskeintza bat ere izan genuen..."

Bilbora egindako irteera bat benetan bitxia gertatu omen zen: "San Antonio eguna zen eta goizetik San Antonion diana jo genuen, Gure Ametsan bazkaldu eta Bilborako bidea bartu genuen arratsaldean apaiz eta guzti, Athletic eta Realak kopako finalerdiko

partidua jokatzen baitzuten. Partidua berdinetarekin amaitu zen, luzapena jokatu eta bi penalti txanda bota ondoren, Gazteluk buts egin zuen berea. Etxera bueltan autobusak aberia bat izan zuen Bilboko auzorik ezagunenetako batetan eta hango neskak ezagutzeko aukera ez genuen galdu. Autobusean apaiza bakarrik geratu zen... Eta gure arraiadun kamisetengatik presotzat

hartzen gintuzten!!"

Ormaiztegi o "aktuazioa" ere gogoan daukate Aspertuarte-koek; "biderako garrafi bat ardo eraman genuen eta Ormaiztegiara heltzean batere girorik ez zegoela obartu ginen. Hango muttil zaharrek instrumentoak eskutatik kendu eta jotzeari ekin zioten. Guk, berriz, poteatzen jarraitu genuen... goizeko 4retan herritik bota gintuzten arte. Eta hurrengo eguna lan eguna zen gutako gebienontzat..."

1973etik 1977ra bitartean herriz herri ibili ondoren ("etxerako buelten berri jakitea nekezagoa da" azaltzen dute umorez) jendea txaranga uzten hasi zen: "Benetan oso ondo pasa genuen eta txarangaren kontuarekin ere ligeak sortu ziren. Gero beste kuadrila batek bartu zigun erreleboa eta hor amaitu zen gure karrera musikala..."

### "Pazkuetako astelehen eta asteartean irtetzen ginen giroa alaitzera"



Aspertuarte txaranga orain dela 20 urtekoa argazkian.



## RINCONES DEKORAZIOA

Rincones nortasun berezia duen dekorazio denda berria da.

Rinconesen antzinako pieza mordoxka dago salgai, baina ez da antigualeko gauza mordoa pila-tuta dauden almoneda edo biltegia.

Rinconesen aurkitu ahal izango dituzu altzari, lanpara, oihal eta osagarri modernoak ere baina ez du denda abangoardista bat ere izan nahi.

Rinconesen altzari eta elementu rustikoak ere saltzen ditugu baina ez gara hórretara mugatzen.

Rincones estilo eta garai desberdinetako gauzen aukera eta konbinaketa dotorea aurkitu ahal izango duzun toki bat da. Salgai dauden altzari eta gauzak, espazio (Rincones) atseginak osatuz eta dituzten kalitate estetikoak nabarmenduz kokatu direneko erakusketa bat da.

Rinconesen klasikoaren ñabardura nostalgikoe-kin eta rustikoaren xumetasun ondratuarekin parez pare eta horiekin multzoa osatuz, diseinurik modernoeneko elementuak edo pintura abstrakto eta surrealistik aurki ditzakezu.



## ANTZINAKO GAUZAK

Domingo Irala z/g BERGARA  
Tfnoa eta Faxa: 943 / 76 52 98

Rincones

dekorazioa

Rinconesek gauza guztien gaitetik bezero eta bisitarien sentsibilitatea pizteko denda sugestiboa izan nahi du. Lehenengo helburua bisitazten duzunean gustora egotea da. Bigarrena, berriz, zerbait erosten duzunean, gauza bat eramateaz gain, zeure neurrirako ideia bat eramatea.

Rincones Bergara erdian dago Domingo Irala kalean Ariznoa tabernaren aurrean, Usoa eta Ganbara artean. Bai pasioan zabiltzala eta bai erosketak egiterakoan alhora utzi ezineko puntua duzu Rincones.





# LAGUN

## AROZTEGIA



ATEAK

LEIHOAK

SUKALDEKO ARMAIRUAK

HORMA ARMAIRUAK

ERA GUZTIETAKO AROTZ-LANAK



Mekolalde, 5 7.  
20570 BERGARA  
☎ 76 08 10 (tailerrekoa)  
☎ 77 02 43 (etxekoa)

# Herriko eta kanpoko taldeak

## ROCK GAUAK

*Australian Blonde, Anestesia, Allnighters..., Bideberrin*



rarrak eta Australian Blonde asturiarrak izango dira eskenategian gaueko 11etatik aurrera. Daxkan Mikel Kareaga (ahotsa), Unai Zubizarreta (bajua), Iker Elorza (kitarra), Jesus (kitarra)

Fucking what! taldeak, berriz, hainbat talderen bertsioak joko ditu, Gorka Bolibar (kitarra), Asier Elorza (bajua), Mikel Etxeberria (kitarra) eta Iñigo Gallastegiren (bateria) eskutik. Australian

zehar.

Azkenik astelehenean Bost axola eta Anestesia-ren txanda helduko da. Anestesia zarauztarrek disko berri bat plazaratu berri dute. Bost Axola taldeko bi partaide plaen-

Azken bi asteetan hainbat jectio egin ondoren, Mikel Kareaga eta Unai Ziarsolok Pazkuetan Bideberrin izango diren rock kontzertuen programazioa osatu dute. Aurten hiru kontzertu iragarri dira; ostiralean, gaueko 11etan, Requiem eta Allnighters taldeena izango da. Requiem talde bergararra Martin Murgizu (ahotsa), Martin De Goñi (teklatura), Imanol Cid (bajua), Celso Cabezas (kitarra) eta Aitor Curadok (bateria) osatzen dute eta ez omen dira estilo bakar batekin identifikatzen. Allnighters talde gasteiztarrek berriz, bere disko berriaren aurkezpena egingo du, blues eta rocka tartekatuz.

Larunbatean, Daxka eta Fucking what! berga-



Bideberri gazteen eta rockzaleen topagune izango da. lazko argazkian, Cancer Moon.

eta Ivan Chimeno (bateria) ari dira eta Kareagaren hitzetan, "estilo ezberdinak lantzen ditugu, azken batean gutako bakoitzari musika mota bat atsegina baitzaigu".

Blonde Gijonekoak dira eta Subterfuge Records diskaetxe independentearekin iaz kaleratutako "Pizza Pop" izenburuko diskoak kritika oso onak jaso ditu Estatu sosoan

txiarrak dira eta beste biak bergararrak: Pedro Rodríguez (bajua) eta Mikel Kareaga (ahotsa). Bap!, Accused, Poison Idea edota Fugaziren bertsioak egiten dituzte.

**Kiroldegiko  
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41



JATETXEA

**umelaga**

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21

**EKAINETIK AURRERA IGANDETAN ZABALIK**

*JAI HAUETAKO  
TOPAGUNEA...*

*EUXEBIO II  
BERRIZTUA*

*PINTXO ETA  
BOKADILOAK...*

*ETA SEKULAKO  
MARTXA*



# EUXEBIO II

Irala kalea z/g

☎ 76 07 92

## BERGARAKO UDAL PELOTALEKUA

### PAZKUETAKO PELOTA JAIALDIAK

#### **LARUNBATA, 21**

SOROA III-AZKARATE /  
ARTEAGA-OLIDEN

ETXANIZ-TOLOSA /  
EUGI-ERRASTI (Txapelketa)

KALONGE-GALARDI /  
BADIOLA II-ASTARLOA

#### **IGANDEA 22**

TELLETXEA-OREGI /  
BADIOLA I-LASA III

RETEGI II-ELKORO /  
UNANUE-ZEZEAGA (Txapelketa)

INTXAURRONGO-ANDUEZA VI /  
KALONGE-ANDUEZA V

#### **ASTELEHENA, 23**

GOÑI /  
NAGORE (4 1/2)

ARTEAGA-BALERDI /  
URIONAGUENA-OLIDEN

GABILONDO-ALBERDI III /  
BADIOLA II-GALARDI

#### **ASTEGARTEA 24**

TXAPELKETAKO AURRELARI GALTZAILEA-LASA III /  
URIONAGUENA-ATZELARI GALTZAILEA

TXAPELKETAKO LARUNBATEKO IRABAZLEAK /  
TXAPELKETAKO IGANDEKO IRABAZLEAK


ASTARLOA /  
ERRASTI



# "Ea gazteak animatzen diren"

## IRRISTADA BATEAN

### *Patin eta patinete lasterketa astelehenean 19.00etan*



dute astelehenerako. "gaztetxo asko ibiltzen da patinekin eta gauza polita izan zitekeela pentsatu genuen".

Primeran pasatzeaz gain, sariak ere izango dira: irabazleak 6.000 pta. jasoko ditu, bigarrenak 4.000 eta hirugarrenak 2.000. Era berean, partaide guztiei JARDUNeko kamiseta eta edari lata bana emango zaie.

Brusa lehiaketako erakusketa, berriz, astearten ikusgai izango da Getatik aurrera Plazan, sari banaketa egin eta gero. Oraindik ere, nahi izanez gero, parte hartzeko aukera izango da eta JARDUNek argazkia aterako die hori egiterik izan ez dutenei: ostiralean 7etatik 9etara Usondon eta larunbatean 11etatik ordu batera eta 4etatik 7etara Usondon bertan. Gainera partaideei egunean bertan bueltatuko zaie euren brusa gauzak ahalik eta gehien errezteko asmoz. Horrez gain kuadrila bakoitzak esaldi bat euskaraz asmatu beharko du, gehienez 3 lerroko luzerakoa jaien inguruan.

Sariak honako hauek izango dira: 14 urtera artekoen artean 15.000 pta. irabazleentzat, 2. saria 12.000 pta. eta hirugarrena 10.000. 14 urtetik go-

rako irabazleek, berriz, 30.000 pta. eramango dituzte, bigarrenak 20.000 eta hirugarrenak 10.000. Partaide guztiek 3.000 pta. ko dieta jasoko dute.



Gaztetxoei zuzendutako lasterketa.

### ITXASMENDI

#### Taberna

Barrenkale 36.  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA

### iRUDI

#### Erlojudenda

#### Bitsitegia

Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

### ARREGI

#### Eraikuntza materialeak

Biltegia Teileria ☎ 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

# BASTER

emakumearentzako arropa eta moda



OSAGARRIAK  
TAILA  
GUZTIETAN


ZATOZ  
PROBATZERA

TELESFORO  
ARANZADI, 2  
☎ 76 10 08

*Jai zoriontsuak izan ditzazuela!!*

# ELKAR

## MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK



Koldo Elizalde, 8  
BERGARA  
☎ 76 00 00

# ELEKTRAGINTZA



# "Giroa astindu nahi dugu"

## ZINTA OLINPIKOA

### Maketa bat grabatuko dute herriko bost taldek

Herri Olinpiadetako batzordea hasi da dagoeneko datorren uztailean jokatu diren V. Olinpiaden programa zehazten. Jaietarako pegatinak eta kamisetak salgai jarriko dituzte, udako olinpiadetarako dirua ateratzeko. Kamisetak hiru koloretakoak dira eta 1.200 pzta. tan salduko dira herriko hainbat lekutan. Pegatinengatik Olinpiada Batzordekoek borondatea eskatuko dute. Halere aurtengo olinpiadak hasten direnerako sospresatxo bat prestatu dute. Pasa den urteko Gabonetan ospatutako play-backean herriko musikari talde batek Herri Olinpiaden kanta estreinatu zuen. Abestiak jendearen artean arrakasta lortu zuela eta, beste 5 kantaz osatutako maketa bat datorren uz-

tailerako grabatzeko asmoa dute. Gabonetan abestutako kanta erdaraz zen, baina oraingoa euskaraz abestuko dute. "Abestia euskaraz abestuko dugu. Instrumentu berriak sartuko ditugu.

Saxoa, kitarra, alboka... Gure asmoa maketa jaietan zuzenean grabatzea zen. Baina zailtasunak izan ditugu eta San Martzialetarako prest izango dugula uste dut" diosku Mikel Fer-

nandez batzordeko kideak.

Maketan musikari bezala Mireia Larrañaga, Iñigo Gallastegi, Asier Elorza, Jabi eta Mikel Etxeberria, eta azkenik Asier Lazkanok hartuko



Mikel Fernandez "Pope" konposaturiko abesti bat izango da maketako izarra.

**Siaska**  
Dena zure haurrarentzako  
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**JOSE LUIS eta MIKEL URTEAGA, 6**  
• Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.  
• Etxebarruen dekorazioa  
☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

**TABERNA ZAHARRA**  
*Jatetxea*  
**Bazkariak eta afariak**  
Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

**REMENTERIA**  
**Altzariak**  
Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak  
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

**GALLASTEGI**  
*Jostundegia*  
mahoizko lanerako jantziak  
San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

dute parte. Musikari horietaz aparte Gabonetako Play Backean irabazle geratu zen folk taldea eta Fucking What eta Sindicato del crimen herriko musika taldeak ere izango dira maketan.

### Fran Iturberen ekoizpena

Olinpiada batzordearen helburua maketa egiterakoan herriko jendeaz osatutako lan taldea eratzea zen. Fernandezek maketa grabatzeko ideia nondik etorri den adierazi digu. "Orain arte Olinpiadetako abesti bezala Andoaingo neska batzuek egindakoa erabiltzen genuen. "Memin"ek beti

*esaten zigun kanta propio bat egin behar genuela eta nik konposatu nuen. Ideiarekin Udalera jo genuen eta han ondo ikusten zutela esan ziguten. Orain, abesti bakar bat grabatu beharrean beste lau sartuko dira maketan, jendeak ikus dezan Bergaran musika munduan zerbait mugitzen dela. Maketa Zabalotegin Fran Iturbek duen estudioan grabatuko dugu".*

Udako Olinpiadei dagokienez Batzordekoek San Martzial bezperarako kontzertu bat antolatzekotan dabilta. Olinpiaden egitaraua zehazturik dago eta berrikuntza ugari iragarri dituzte.



Fran Iturbek Zabalotegin duen estudioan grabatuko da zinta.

## Mireia LARRAÑAGA

**Olinpiada batzordeak aterako duen maketaren abesti arrakastatsuenen, Herri Olinpiaden ingurukoa izango da. Berau abesten Mireia Larrañaga izango da. Kantatzeaz gain berak euskaratu du abestia.**



- Ze kanta abestuko duzu?

- Olinpiadetako abestia. Lehen Mikel Fernandezek erdaraz egina zuen letra eta orain euskaratu ondoren, nahiko ondo gelditu da egin ditugun entsaiuetan.

- Kantaren letra zeri buruzkoa da?

- Olinpiadei buruzkoa. Bertan pertsona baten gorabeherak kontatzen ditugu. Pertsona horrek ez daki zer egin udan eta Olinpiadetan apuntatzen da eta bertan esperientzia ezberdinak biziko ditu.

- Martxa askoko abestia izango da?

- Hasieran nahiko la-

saia da. Gero pixkanaka-pixkanaka kitarra eta saxofoiaren punteoei esker martxa bizia hartzen du abestiak.

- Zela ausartu zara abestera?

- Hasieran Mikel Ibarzabalek abestu behar zuen. Baina azkenean niri tokatu zait. Dagoeneko 3 edo 4 entsaiu egin ditugu eta ondo irten dira.

- Musika aldetik beste esperientziarik ba al duzu?

- Bandan eta orkestran jotzen dut eta koruan ere abestu izan dut. Lagun talde batek folk talde bat sortzeko asmoa ere bagenuen, baina denbora falta dela eta ez da aurrera irten; ikusi egin behar aurrerago...



# IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskola honek zera jakinerazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa:  
IRAKASLE ESKOLA ☎ 943 / 71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



# ARDATZA

## Brikolaketa

- KOADROEN ENMARKAZIOA
- ESKULANAK
- Torneatuak
- Erretxina
- Kutxak
- Pertxeroak
- Pinturak (kristala eta akrilikoa)
- ATEAK
- KIT ALTZARIAK



DENDA: Masterreka, 4 ☎ 76 18 93 AROZTEGIA: Masterreka, 18



E. GABILONDO

J.M. AZPELETA

Domingo Irala kalea BERGARA ☎ 76 57 85  
S. Frantzisko, 51-1D ELGOIBAR ☎ 76 44 67



- SALEROSKETAK
- TRASPASOAK
- ALOKAIRUAK
- MAILEGU ETA  
DIRULAGUNTZEN  
TRAMITAZIOA
- IKERLANAK
- LUR-ONDASUNEN  
ADMINISTRAZIOA



# BERGARAKO UDALA

## DENBORA LIBRERAKO AUKERAK

- ADIN GUZTIETARAKO KIROLA
- EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK
- AFIZIOAK LANTZEKO AUKERA UGARI
- HAURRENTZAT AKTIBITATE PROPIOAK
- HEZKUNTZA ESKAINTZA ZABALA
- GUZTIENTZAT JAIK:
- Haurrentzat: JOLASAK, PARKEA, TRENA
- Gazteentzat: ROCK JAIALDIAK, PATINETE LASTERKETA...
- Nagusientzat: SUKALDARITZA LEHIAKETA, ANTZERKIA



☎ 76 59 57



☎ 76 59 79



☎ 76 44 46

# Xabier Aranburu, Bergarako museologoa:

## "Asteazkeneko museoko bisitek erantzun oso ona izan dute"

Asteazkenean ospatzen zen Museoen Nazioarteko Eguna zela eta, Seminarioko museoak herritarrei ateak zabaltu zizkien. Xabier Aranburu udal museologoa jasotako erantzunaz pozik azaltzen da.

- Zenbat jende hurbildu zen asteazkenean Seminaria?

- Espazio arazoengatik, iragarrita zeuden lau bisitatan, gehienez 25 laguneko taldeak osatzea nahi genuen, eta guztira, 84 pertsona etorri ziren, bisita bakoitzean 21 batz bestea. Erantzun oso ona izan da guretzat eta jendeak sekulako interesa azaltzen zuen. 20-25 minututan bildumaren historia, konposizioa, gaur egun egiten dugun lana (restaurazioa, kontserbazioa eta inbestigazioa) eta etorkizuneko museo bat egiteko dugun proiektua azaldu genuen.

- Zerk sortu zuen jakinminik haundiena?

- Zoologiak gehienbat eta zientzia eta teknikako aparailuek ere bai. Giza anatomiaren sailean dugun begiaren modeloarekin ere jendea txoratuta geratu zen.

- Zer diferentzia dago museo



Xabier Aranburu udal museologoa eta Rosa Errazkin museoko langilea.

eta erakusketa iraunkor baten artean?

- Erakusketa iraunkor batean piezak erakusten dira soilik eta museoan, berriz, hori baino gehiago da: piezak erakusten dira baina horrez gain, piezak kontserbatu, berritu eta ikertu egiten dira eta horretarako behar bezalako biltegiak, errestaurazio tailer bat, liburutegi espezializatu bat edota inbestigatzeko gune bat behar dira.

- Bergarakoari zer falta zaio museo izateko?

- Oraingoz biltegi bat da gurea; ondo antolatuta dago eta piezen kontserbaziorako ere egokia da. Museo izateko espazio haundiago bat behar da eta oraindik pieza asko falta dira berrizteko. Hutsetik hasi garela esango nuke eta hori berriz martxan jartzea egundoko lana da. Ezin da esan noizko bihurtuko den museo.

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta, 3

**ileapaindegia**  
eder gela

disdira

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

**GURIDI** Altzariak

**Era guztietako**  
**altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**ZAPELAITZ**

Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

**EGUREN**  
GESTORIA

**Maria Pilar Eguren Diez**  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45

# Jaietako egunik onena? Zerbait botatzen duzu faltan?



**Felipe Iñarra**  
25 urte, ikaslea

Asteko egunak, herriko jendea dagoelako eta jaietako tontokerixia buruan daukazulako. Faltan? Giro, kontzertu eta txozna gehiago.



**Rosarito Larrañaga**  
43 urte, etxeoandra

Astelehena, herriko jendea bakarrik dagoelako. Egia esan, ez dut ezer faltan botatzen.



**Jose Angel Arriaran**  
30 urte, langilea

Astelehena eta asteartea, jende gutxiago eta giro hobea dagoelako. Faltan, astelehena, martitzena eta eguastena jai izatea kanpoan lan egiten dugunok.



**Maria Jesus Errarte**  
60 urte, etxeoandra

Martitzena, gazteentzako onena da eta. Neri kaleko giroa eta txistulariak gustatzen zaizkit gehien. Eta gaueko dantzak.



**Alberto Askasibar**  
42 urte, langilea

Martitzena, kuadrilan pasaten dugulako, bazkaria, afaria eta hamarretakoa ere egiten dugu. Ez dut ezer faltan botatzen.



**Izaskun Frago**  
21 urte, ikaslea

Astelehena eta asteartea, lasaigo ibiltzeko aukera baitago. Egunean zehar ekitaldi gehiago eta kontzertu gehiago egon beharko lirateke.

*Elena*

BIZKAIA ETORBIDEA ARRASATE



☎ 77 14 24

Ibargarai 31, barruko plaza  
☎ 76 03 53



**ONDO PASAU JAIXAK!!**



ZIRIPOT

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Amets



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI



## Betikua eta nobedadia

Jaiak, parranda, afari espezialak, badatozela, kaleko giro epela, txarangak, musika, ta barrenean zerbait berezia aste osuan, betikua. Iripparria, azken ikutuak, estuasuna, blusa, urterokua, nerbixuak. Bitorianatxo, jo ta ke, plazan gora eta behera, jo ta ke, tabernaz taberna, jo ta sua, egun osua, danak atera arte. Betikua.

Antzuolar separatisten inbasiñua, lagunak kaiolan sartuta, ez gaude denok, larunbat gaua a tope jendez gainezka, urterokua. Falta direnak ezin burutik kendu, batzuk lehen aldiz aurten barruan. Txosnak, lo ezin egin, rocka, pelota. Lau orma artian, kanpotik lagundu bihar baina batzuk borondateik ez, betikua. Zezenari ezin adarretatik eutsi, barreraren atzian jende gehiegi.

Sokamuturra, jatorra, bueltaka, barrakak, zezenak korrika, kalian gora eta behera gaupasa, zahatua, buztana motza eta adar zorrotzak, gosaria. Betikua. Toreruak, nobedadia, arratsaldia, odola, ezpata, tortura. Gauza berria. Oole! Nobedadia. Kaiola, ezin egona, tristura.

Eta ia hurrengo urtian nobedadia daukagun eta danok libre gauden. Betikua.

**Jon ALTUNA**



## Beti alferkeriaz iristen dira

Jaiak iristen diren bakoitzean gogoratzen naiz gaztetxo nintzenean beti lelo bera entzun behar izaten nuela etxean: ordutegiak, dirua, azterketa madarika-tuak..., eta orain "nagusi" naizenean eta arazoak, edo horiek behintzat, desagertu direnean, gorputza da hainbeste farra segidan egiteko indarririk ez duena. Tamalgarria da.

Kuadrilletan mendira joatea, opor txikiak, deskantsatzea... entzuten da, eta nire ustez, edo azkarregi hazi gara edo zerbait ez dabil ondo.

Jaietako egitarauari begirada bat bota diot, animatzeko, eta ez dut ezer berririk ezta benetan erakargarrikerik ere topatzen, inoiz ez dago halakorik herri edo hirietako festetan.

Guzti hori gorabehera, jaiak ixil ixilik datoz, hanka puntetan, eta ixiltasun hori apurtzean denean eta azukrezko algodoiak, txurro, kalimotxo eta sandalo usainak nabarmentzen direnean, festa-gogoa sartzen zaigu gorputzean, esfortzutzeko bat egin, diru-zorroa askatu eta ostirala, behintzat, ume txikien pare disfrutatzen dugu.

Bai, uste dut, Berrigarako mutilei esker, ez ditudala aurtengo jaiak ere galduko, hasierako alferkeria alde batera lagatzeak beti merezi izaten du eta. Elkar ikusiko dugulakoan.

**Marta MORAL**

JAIETAN

# M2

ONDO IBILI

- Errotuloak -



**76 57 93**

**FS** foto sistema *Albenis*

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Bergarako Zaharren Egoitzako ordezkariak ahalik eta emaitzarik onenak lortzen saiatuko dira datorren astean Legazpin jokatu diren probetan. Ea sasoi onari eutsi, ondo pasa eta, bide batez, dominaren bat edo beste lortzen duten. Zorte on guztiei!!

### Gipuzkoako txapelketara

Bergarak goian ikus dezakezen ordezkari izango du maiatzaren 25etik 27ra bitartean Legazpin jokatu den **Gipuzkoako Zaharren Egoitzen** Arteko Joku Txapelketan, aurreko asteetan sailkatze probak jokatu ondoren. Argazkian: Jose Arakistain eta Ramon Agirre (mus), Jesus Etxabe eta Martin Guridi (briska), Mariano Pérez eta Jose Moncayola (domino), Felix Uriarte, Valentín Pedrejón eta Felipe de Benito (toka), Jose Maria Artola (billar), Pablo Gallastegi (xakea) eta Angel Aperribai eta Justi Iarrañaga (tute). Ea txapela jantzita etortzen diren Legazpitik....

### "Graduazio" ekitaldia

Maiatzaren 15ean Santa Juana Lestonnac **Mariaren Lagundi-ko** sortzailearen eguna zela eta, ostiralean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek omenalditxo bat eskaini zieten azken kurtsokoei. Aurten ikasketxea utziko duten 20 ikasleek birrete bana jaso zuten gazteen txantxen artean. Ondoren, guztiek *luncha* izan zuten.



Ekitaldia ofiziala izan ez arren, Estatu Batuetako graduazio ekitaldietan moduan, ikasleek birrete bana jantzi zuten. Zorionak guztiei!!

# MEMESA



ARRASATE 79 42 22 ARETXABAETA

# SFK



**Udaletzeko obrak bisitatzan**

Eli Galdos Diputatu Nagusia eta Anton Arbulu Hirigintza Diputatua asteazkenean Bergaran izan ziren Udaletxean egiten ari diren berrikuntza obren martxa zelakoa den jakiteko. Besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Gallastegi Hirigintza zinegotzia, Alvaro Esparza Enplegu eta Gizarte Arazoetarako zinegotzia edota Jabier Yeregi udal arkitektoaren laguntzaz, obrak bisitatu zituzten. Berritze lanak, printzipioz 657 milioi pta. inguruko aurrekontua dutenak (Diputazioak 279 milioiko dirulaguntza emango du), Gabonak aldera amaitzea espero dira.

**50 urte**

Ezkondu zireneko 50. urteurrena bete zuten pasaden asteartean, hilak 17, **Dionisio Igarza** (84 urte) eta **Maria Azkaratek** (82). Egun berezia ospatzeko dotore-dotore jarri zirela eta, argazkia atera genien. Aurretik bazkari espeziala izan zuten eta bazkalostean, berriz, kafea eta pastelak. Primeran pasa zuten familia artean. Zorionak!!.



**Zertan dibardute ba?**



**Juan Carlos Gómez de Segura** Bergara K.E.ko futbol talde nagusiko 36 urteko jokalaria denboraldi amaieran erretiratzea erabaki du. Gómez de Segura Elorrión jaio arren, aspalditik Bergaran bizi da eta Elorrión, Alavés, Durango, Eibar eta Lemoako futbol aldeetan jokatu izan du, gazteiztarrek eta eibartarrek 2. A mailan jokatzera iritsi zelarik. Azken 3 denboraldiak Bergaran eman ditu eta bere hitzetan, *"gustatuko litzaidake Bergara gorago egotea baina aurten talde hobetoagoak izan ditugu aurrean. Gustora ibili naiz baina erretiratzeko ordua heldu zaidala uste dut"*. Maiatzaren 29an bere azken partidua jokatu du Bergararekin, Agorrosinen, Pasajesen aurka.

**IPINTZA INSTITUTUA**  
**AURREINSKRIPZIO EPEA**

IKASTETXE HONETAN 94/95 IKASTURTEAN BBB ETA UBI EGIN NAHI DUTEN IKASLEEK MAIATZAREN 4TIK 18RA BITARTEAN EGIN BEHAR DUTE AURREINSKRIPZIOA. ☎ 76 31 42.

**TENERIFERA!!**

**Bolu Gimnasioan hilabeteko kuota ordaintzeagatik, Kanarietan bi pertsonarentzako astebeteko egonaldia (bost izarretako apartahotelean) doan.**



**ZATOZ !!**

# Joseba Prat

**Joseba Prati (34 urte) Pazkuetan lan egitea tokatu zaio azken urteetan. Orain, Eibarko Zerga Aitorpenaren bulegoan ari da lanean eta Udaletxeko publizitatea banatzen ere ibiltzen da. Oraintsu, beste bi lagunekin batera, jaietako programaren 5.000 ale banatu dituzte.**

- Jaiak egunez ala gauzez?
- Egunez.
- Ze ordutan jeiki eta oheratu?
- Bederatzi t'erdia aldera jeiki eta ordubietan etxera.
- Ajea pasatzeko, zer?
- Txakurrarekin pasiatu.
- Zezenketara joango zara?
- Ez, ez zait gustatzen.
- Eta entzierroak korritu ala ikusi?
- Ikusi. Korritzeko beldurra...
- Barrakarik gustokoena.
- Dragoia, loibarekin joaten naiz.
- Algodoirik hartzen duzu?
- Ez, goxokirik ez.
- Jaietako egunik onena?
- Asteartea, lagunekin ibili eta Gestoretako txoznan laguntzeko
- Brusa berria aurten?




*"Ajea pasatzeko txakurrarekin irtetzen naiz pasiatzera. Ez dut uste jaietan Saloura joango nintzatekeenik; jaietako egunik onena asteartea da niretzat. Pazkuetan nahiago dut etxetik kanpo bazkaltzea"*

- Ez orain 5 bat urtetik duguna: gorria eta mangak kuadroduak.
- Zerbait botatzen duzu faltan?
- Espoloiko dantzaldiak.
- Eta gauzarik onena?
- Antzerkia.
- Jaietan zinera bai?
- Ez.
- Ikusitako filmerik onena.
- La lista de Schindler.
- Aukera izanez gero, Saloura joango zinateke?
- Ez dut uste.
- Txoznak ala betiko tabernak?
- Txoznak.
- Plazako berbenak ala Bideberriko kontzertuak?
- Berbenak.
- Jaietan errezago ligatzeko?
- Betiko moduan.
- Nork garbitzen dizkizu zapatilak?
- Labadoran sartzen ditut.
- Jaietan txapelik jantzen duzu?
- Bai.
- Edari bat?
- Bi: garagardoa eta txanpana.
- Bazkaldu etxean ala kanpoan?
- Kanpoan.
- Publizitatea banatzeko oinez ala kotxea?
- Biak, baina gehiago oinez.
- Liga zeinek irabaztea nahi zenuen?
- Deporrek.

BILARRAK

FUTBOLINAK



FLIPERRAK

☎ 76 12 00

☎ 76 29 91

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK



San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

**BERGARA**



# BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



## Gorka Arenaza

**GORKA ARENAZA** dugu aste honetako BONOFOTOko irabazlea aurreko galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen baserriaren izena **Arizmendi** zen. **Gorkak** asmatu du eta berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Gorka**, eta besteek segi jokatzen.

Nor da eskultura honen egilea eta non aurkitu dezakegu 1989.ean eginiko irudi hau?

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria:  
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**

# ELKAR

Arruriaga, 1 behea BERGARA ☎ 76 58 16



- **FOTOKOPIAK KOLORETAN**
- **PLASTIFIKAZIOAK**
- **PLANOEN KOPIAK**
- **JENDEARENTZAKO FAXA**



- **ENKUADERNAZIOAK**

- **TERMO ENKOLATUAK**
- **BURDINAZKO ESPIRALAK**
- **PLASTIKOZKO ESPIRALAK**
- **FAZIKULOAK**

**ESKAINTZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.**

**KIROL  
KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

- Lehen Erregionala:  
**Bergara-Soraluze**  
Larunbata, 16.30, Ipintza.
- Lehen mailako jubenila:  
**Bergara-Aldapetarra**  
Larunbata, 18.30, Ipintza.
- Lehen mailako infantila  
**Bergara-Pasajes**  
Larunbata, 11.30, Ipintza.

**ESKUBALOIA**

- Senior mutilak:  
**Bergara-Caja Bilbao**  
Larunbata, 18.30.
- Junbenil mutilak:  
**Bergara-Mundaiz**  
Larunbata, 17.30.  
Biak Labegaraieta  
Kiroldegian.

**SASKIBALOIA**

- Jubenil mutilak:  
**Bergara-Lasalle**  
Larunbata, 16.00,  
Kiroldegia.

**NESKEN FUTBITO  
TXAPELKETA**

- 16.30: **Sinatrak Tip-Buldogs.**
- 17.30: **Naiara-Notxingan Flores.**  
Larunbata, 29, Institutoko patioa.

**PELOTA**

- Herri Arteko Txapelketa  
**Bergara-Amezqueta**  
(Finalurrekoa)  
Ostirala, 22.00,  
Udal Pelotalekua.

**Eskubaloi talde nagusia  
mailaz igo daiteke larunbatean**

**Partidu** erabakiorra jokatuko du zapatuan Labegaraietan arratsaldeko 6.30etan eskubaloiko senior taldeak. Caja Bilboren aurka irabazi ezker, 2. maila nazionalera igoko dute Josetxo Muniategik entrenatzen dituen mutilek. Garaipena lortuko ez balute hurrengo astean Arrasaten jokatuko duten azken partidura arte itxoin beharko lukete.

Igoera fasean jokatutuzten zortzi partiduetatik 5 irabazi egin dituzte, 2 berdindu eta bakarra galdu.



Bi partidu falta direnean liderrak ditugu bergararrak.



**Reala Bergaran**

Datorren asteazken goizean, hilak 25, Realak Agorrosingo zelaian entrenatuko du, Gipuzkoako futbol talde nagusia probintziako herrietara hurbiltzeko programaren barruan. Nahiz eta denboraldia amaitua izan, Realeko jokalariek entrenatzen jarraituko dute hilaren azkenera arte eta Bergaran jokalaria guztiak izatea espero da, tartean **Agustin Aranzabal** Realarekin dagoeneko 4 partidu jokatutuzten bergararra. Entrenamendua goizeko 11tan izango da eta entrenamendua amaitutakoan Realeko jokalaria, entrenatzaile eta hainbat direktibok Pertxa elkartean bazkalduko dute, bazkalostean Donostiara bueltatuz.

20 urte zure  
zerbitzura,  
kalitatezko  
altzariak  
eskaintzen

**ederTU**

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

**MAKAILO**  
Makailau  
kazuelak  
gertatzen ditugu  
**ETXEA**  
Ibargarai 15



# ARANETA E.M.

Aitziturri, 6 San Lorenzo Poligono Industriala  
Tfnoa: 76 07 02 - 77 04 95. Faxe: 79 95 13


- Suteen kontrako material eta ekipamenduen salmenta
  - Aholkularitza teknikoa
  - Suitzalgailuak bete eta mantentzea
- Sua detektatu eta itzaltzeko instalazio automatikoak
- NEKAZARITZARAKO ETA ETXERAKO UR PONPA INDUSTRIALAK

- INDUSTRIA
- ERAIKUNTZA PUBLIKOAK
- GARAJEAK
- JABE-ELKARTEAK




## COMERCIAL BRUNET


Ozaeta, 11-13 behea Telefonoa eta faxe: 76 31 52 20570 BERGARA



235 R MODELOA  
69.923 pzta.  
BEZ BARNE



245 R MODELOA  
89.550 pzta.  
BEZ BARNE



250 RX MODELOA  
119.336 pzta.  
BEZ BARNE

 **Husqvarna**  
BOSQUE & JARDIN

HUSQVARNAK eta COMERCIAL BRUNETek jai  
zoriontsuak opa dizkizute



Infantil, jubenil eta senior bikoteak Reyes Azkoitia entrenatzailearekin.

# Herri Arteko finalerdietan

*Amezketaren kontra jokatuko dute herriko pelotariak*

**Bergara K.E. pelota** saila Herri Arteko Txapelketako finalerdietarako sailkatu da, Idiazabali 4 eta 2ko emaitzarekin irabazi ondoren. Bergaran 2 eta 1 nagusitu ziren ber-

gararrak eta ostiralean emaitza bera lortu zuten Idiazabalen. Larrañaga eta Zabaleta infantilek 18 eta 3 galdu zuten baina jubenilek eta seniorrek markagailuari buelta

eman zioten. Zabaleta Gutierrezek 22 eta 10 irabazi zieten beren arerioei eta Oregi eta Oruesagatik, berriz, 22 eta 18. Azken partidu horretan 18nako berdinketa ere izan zen baina azkenean bergarrek 4 tantu jarraian egin eta kanporaketa aurrera atera zuten. Bergararekin batera Amezketan, Arrasate eta Segurako taldeak sailkatu dira finalerdietarako eta Bergarak Amezketaren aurka jokatuko du ostiral honetan Bergaran.

Deba Arroko Txapelketan, bestalde, Oregi eta Oruesagatik osatutako bikotea finalerako txartela lortu zuen asteazkenean Aratxabaletako bikoteari irabazi ondoren.

## Ipintzako Futbol Txapelketa

Adin mugarik gabeko Ipintzako Futbol Txapelketa prestatzen hasiak dira dagoeneko. Parte hartu nahi duten taldeek maiatzaren 27a baino lehen eman behar dute izena, Bergara Kirol Elkarteko bulegoetan. Bergara edota Antzuolan jaio edota bizi eta 1994ko maiatzaren 1ean gutxienez 18 urte izatea eskatzen da. Federatuek aurten ezin izango dute jokatu. Maiatzaren 27an arratsaldeko 7.30etan ordezkarien bilera iragarri da B.K.E.ko bulegoetan.

## KIROL EMAITZAK

### FUTBOLA

- Prefente maila: **Bergara 3-Lagun Onak 2**
- Lehen Erregionala: **Azkuene 1-Bergara 1**
- Lehen mailako jubenila: **Eibar 1-Bergara 2**
- Lehen mailako kadetea: **Aloña Mendi 1-Bergara 1**
- 2. mailako kadetea: **Lazkao 1-Bergara 1**
- Lehen mailako infantila: **Pasaia 0-Bergara 4**

### ESKUBALOIA

- Senior mutilak: **Gure Auzune 16-Bergara 19**
- Kadete mutilak: **Zarautz 18-Bergara 30**
- Junbenil mutilak: **Bergara 25-Bizkor 24**

### SASKIBALOIA


- Jubenil mutilak: **Askatuak 70-Bergara 55**
- Infantil mutilak: **Aranzadi 59-Salleko 50**

### NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

- Sinatrak Tip 1-Naiara... 0**
- Not. Flores 1-Hamaikak... 1**

### PELOTA

- Herri Arteko Txapelketa **Idiazabal 1-Bergara 2**
- Deba Arroa Txapelketa **Bergara**



JAI ZORIONTSUAK

IZAN

DITZAZUELA!!



*Lure  
Opari Donda  
Bergara*

Barrenkale, 27




## Goiz Argi dantzataldea, 1960ko Pazkuak

**1** 960ko Pazkuetan bata besteari eskua emanez aureskua dantzatzen Goiz Argi dantza taldekoak dituzue goiko argakian agertzen direnak. Dantzariak 19-20 urte bitarte zituzten eta gure herrian ezezik inguruko herrietan ere nahiko ezagunak izan ziren. Dantza taldeko irakaslea Joakin Etxaniz zen eta horra euren izenak.

**Ezkerretik hasita:** Jabier Muruamendiaraz, Ramon Etxaniz (txistularia), Jabier Juaristi, Patxi Azkarate, Joxe Alberdi, Jose Antonio Agirrebeña, Jose Ramon Lazkano, Jose Luis Mendizabal, Joxe "Igeltserua" (aurpegi erdia ikusten zaiona) eta Migel Lazpiur.

*Argazkia: Migel Lazpiur.*



**POL-POL**

TABERNA

☎ 76 07 78

**DEPORTIVO**

TABERNA

☎ 76 01 51

**Aranzabal**

**OIHALAK**

Zubieta, 32

☎ 76 11 50

**ETXEBIZITZA**

Pisua alokatzen da **Jacan**, herri-erdian. ☎ 76 43 98.

Garajea salgai Santa Marin. ☎ 76 34 31.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea (bi plaza) salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 52 55.

Zubiaurren **pisua aloka**  
tzen da. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

Pisua alokatzen da Zabalotegin. ☎ 76 33 93.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Pisua amueblatua salgai Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

Pisua salgai Artzamendi. ☎ 76 44 60.

Etxea salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

Garajea salgai Ibarga-rain. ☎ 76 36 69.

Pisua alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 11 89.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 31 49.

**DENETARIK**

Yamaha 600 motorra salgai. SS-4. 300.000 pza. ☎ 76 49 43 / 17 64.

Kotxearen irratikaseta salgai (bi baffle). ☎ 76 37 29 (Martin).

Remolke-denda "Cabannon" salgai. ☎ 76 37 82.

Edertze aretoa traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

Errepiderako **bizikleta** (Vitus koadroa) salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 29.

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Enkuadernatzeko **prensa** erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

**BX-16 TRS kotxea** salgai. SS-V, 150.000 pta. ☎ 76 48 23.

Montesa Cota 335 (SS-AF, 175.000 pta.) eta **Vespa 200** (VI-F, 60.000) motorrak salgai. ☎ 76 53 55.

Subijanaren sukaldaritza liburua eta 6 bideo (7.000 pta.) eta patin botak (5.000) salgai ☎ 761968.

Bilbon pisua konpartitzeko norbait behar da. ☎ 76 61 68 (1-2, 7.8.30).

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Alfa Romeo 33 SS-AB **kotxea** salgai. ☎ 76 02 01.

Erabili gabeko **Dr.Martens** beltzak salgai. 38/5 zenbakia. ☎ 76 37 82.

Neska batekin edo birekin pisua konpartituko nuke. ☎ 76 27 30 (Arantxa).

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Game-boy bat salgai. 16 joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

**LANA**

Makinaz edo ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 21 33 (Garbiñe).

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta ingeles klaseak (maila guztiak). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

Exeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 56 92.

Ingeleseko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak. ☎ 76 50 67.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Haurrak zaindu edota **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 26 73.

Haurrak zaindu eta **etxeko lanak** egingo nituzke (esperientzia). ☎ 76 25 81 (Leire).

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Hildakoak**

*Generosa Eguren Mendialdua*  
maiatzak 14, 94 urte

**Jaiotakoak**

*Maite Elorza Alberdi*  
maiatzak 14

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

**EZPELETA**  
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**ZUBIETA**

**elektragarintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

# HALZZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea  
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR**



Sukalderako altzariak

**Sukalde zoragarriak!**